


1995eko otsailak 17

265. zenb.


PRESS

# ARRASATE



**Maidier Osa  
Amodio  
kontuetan  
irabazle**

# AUZO GUZTETAN, ZURE ARRIMURA



San Frantzisko Xabier

IKASTOLA

# Zinismo politikoa

**K**aleko gizon arruntak aitaren-semearenka ikusten ditugu politikoen morfologia berezia dela-eta, izan ere, Estatu arrazoiak aitzaki hartuta, egia-aren linealtasun ustezkoa aldatzeko ere gauza dira. Egia, giza-jokaeraren gidari eta norabide izan behar lukeena, gauza bitxi bihurtzen da, heroiko eta ezohiko.

Interesek, —partiduenek edo taldearenek—, gertakariaren gardentasuna blokeatu egiten dute eta bere kontzientziarekiko jokabide koherentea erakutsiz desadostasuna adierazten duena satanizatu egiten dute interesok. Alderdien zinismoa hain da handia ze, hala jarraituz gero gizartea bera ere suntsitu egingo du, egia irabaztea garantizatzen behar diren gutxieneko baldintzak sortzeko ere ez da gai eta.

Dialektikaren armarik onenak zorrotasunaren eta trikimailuaren zerbitzuan jartzen dira, "gaur negatik eta bihar zugatik" esararen mehatxupean. Inor gutxi berba egiten du erantzukizunaren eta ikerketa inpartzialaren alde, eta edozein ikerketari katu-izuak bezala ihes egiten zaio, gertakariak jakin eta gero, atzera egin eta epai politikoa onartu beharrean aurkituena ere.

Alderantzizko arrazonamendua egiten da. Inor ez da behartzen egia esan eta egia maite izatera, eta egin behar hori ez da gizartera eramaten; egiazko gertakariak nabarmen gera daitezkeen behar diren mekanismoak gauzatzeko eginkizuna hartzen du gizarteak. Balore etiko pertsonalean baino konfidantza handiagoa dago egitura juridikoan, informazioaren presioan eta gizabanakoarengan kanpoko eta zeharkako zentsore lana egiten dute horiek. Uste horretan daudenean, behar bada, gizarteko konbibentzia artifizialki eta gaizki eraikitako zerbait dela, urtetako gizarte-gatazka eta borrokan eraginez sortua, pentsatzen dute. Eta emaitzek erakusten

dutenez, norbanakoengan ere eragin etiko txikia du horrek.

Hala eta guztiz ere, etika sozial eta politikoa derrigorrezko ikasgaia da, elkarbizitzan oinarritutako gizarte humanoaren oinarriak jarri nahi badira. Zintzotasun pertsonalaren araukin bat datozen balore jator eta moralen grazia barik ezin izango da gizarte osasuntsu eta iraunkorrik gorpuztu. Komunitate aske eta esponeoagorantz ere nekez emango da urratsik, bere lider nagusiek aurrepegi bikoitza eta engainua badute lege. Ez dute ezagutzen dituzten gertakariaren egia bilatzen, egia horren argiak lege-trikimailu egokiak erabiliz apropos iluntzea baino.

Dirua eta boterea lagun bihurriak dira eta gizarte zibilak dagokien lekuan jartzen ez baditu, orain eta gero ere egingo dute egitekoren bat; izan ere, gizaki materialak, ahula ezer ahulik bada, haren bitsetara egingo du salto, irudi batzuen diztirak erakarrita, estatus sozialaren tranpak eta kartara zerbitzatutako erotismoaren eztiak gozatuta.

Garai batean ideologiaren babesean sinitzen zen, baina babes horren ahulezia agerian geratu da denborarekin, boterearen eta aberastasunaren arrastorik txikiaren sareetan jausten baita gizakia, hain nota goxoei uko egiteko gauza ez delako.

**JESUS LARRAÑAGA LIZARRALDE**



**GATZAGAN,  
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ  
jatetxea**



**Memesa**  
**79 42 22**



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaureritza Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnua: 77 05 65. Faxes: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Maria Agirre. **Kazetariak:** Ixaro Zubillaga, Maider Egües. **Hizkuntza arduraduna:** Arantza Ozaeta. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Tfnua: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopti, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanien eta intzientziazkoen.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Maider Egües.

# MARGOAK JUANMA

Margoak, paperak,  
gotelea e.a.

Agerre kalea, 5 3. ezk.  
Tfnoa: 79 69 17

# TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

# I R T A B E R N A

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11



**Alkoholarekin arazoak  
dauzkazu?**

Agian,

**“Alkoholiko Anonimoek”  
lagundu ahal dizute!!**

**Alkoholiko  
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa  
(Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38

.....

## Barrera arkitektonikoak

**K**eja bat aurkeztu nahi nuke, tabernen, lokalen, denden eta beste hainbaten kontra. Nire galdera honakoa da: lokal bat egiterakoan elbarri dauden pertsonekin ez gara oroitzen, zergatik hainbeste barrera arkitektoniko? Eskilarak, eskaloi handiak, ate estuak...

Nire gutun hau herri guztiak irakurtzea gustatuko litzaidake.

Elbarrituekin elkartasuna.

**ALAITZ ITURBE  
ALDAZABAL**

.....

## Datuak manipulatzen direnean

**E**skutitz hau, batez ere, J.J. Zabarte jaunaren eskutitzean erabiltzen diren datuei buruz gauza batzuk argitzeko da. Manipulazioa

gertakari edo gatazka baten datu asko estaltzen direnean hasten da, gaur egun Euskal Herrian dagoen gogorkeria heriotzen zenbatekoan neurtzen denean.

Zabarte jaunak oso zuzurki eta nahita puntualizatzen duenean alde bateko heriotzak 52 izan direla azken hiru urteetan eta beste aldekoak 5 (alde bakoitza zein den argi dagoela uste dut), zergatik ez ditu plazaratzen alde batean 118 torturatu izan direla (1994ean soilik) eta beste aldean zero, alde batean 600 preso (ilegalki dispersatuak), 2.000 erre-  
fuxatu inguru eta 50 inguru deportatu daudela eta beste aldean zero, edo alde batekoak ez dutela bere herriaren geroa hautatzeko aukera, ejerzitoaren interbentzioarekin mehatxatuz, beste aldekoak direlarik esku-bide hau lapurtzen digutenak.

Gatazka honen datuak

plazaratu nahi badituzu, plazaratu itzazu denak, bestela helburu bakarra dute, hots, manipulatzeari.

Azken puntu bezala esan nahi dut, azaldu ditudan azken datuen aurrean zeuen kontzentrazioak ezin direla zenbatu, ez baitira izan, Imanol Lertxundiren azken heriotzean izan ez diran bezala.

**PREMIN SANPEDRO**

### Oharra

Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutuan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzearekin izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontutuan izan identifikatu barik datoren gutunik ez dela argitaratuko.

*Mendi  
taberna*

**MENDI DA ZURE ETXEA**

Maalako Arrabala, 4  
Tfnoa: 79 20 54



**ITURRIOTZ**

**taberna**

**Girorik  
jatorrena!**


Tfnoa: 79 16 04

# Klima aldatzen ari da?



**Ana Mari Muro Etxekoandrea**  
(58 urte)

Bai, nire ustez bai. Lehen sirimiria izaten genuen askotan eta orain oso gutxitan. Lehen edurra ere gehiagotan egiten zuen.



**Koldo Fernandez Sukaldari laguntzailea**  
(59 urte)

Bai izugarri aldatu da. Lehen hezetasun eta hotz gehiago izaten genuen. Eduarra ere urtero egiten zuen. Nire ustez garbi dago aldatu dela.



**Agurtzane Zabala Institutuko irakaslea**  
(30 urte)

Baliteke. Gurasoei entzunda, itxura denez lehen edur gehiago egiten zuen. Uda parteak ez dakit baina neguak epelagoak izaten dira orain.




**Esteban López UCEM Arrasateko langilea**  
(46 urte)

Bai, lehen sirimiria izaten genuen beti eta euria ere askoz gehiago egiten zuen. Orain hegoaldekoaren antza du hemengo eguraldiak.



**Gema Sánchez Langilea**  
(19 urte)

Bai asko igertzen da. Neguan eguraldi ona izaten dugu eta udan, batek daki zer egiten duen.



**Jose Luis Perez de Ciriza Jubilatua**  
(66 urte)

Boladak izaten dira. Nik ez dakit zergatik den, baina esan didatenez, lehen ere bolada batzutan lehortekak izaten ziren.



**Marian Gallardo Langabezian**  
(25 urte)

Nik baietz uste dut. Lehen euri gehiago egiten zuen eta sirimiria ere gutxitan izaten dugu orain.




**Julio Bakero Copreciko langilea**  
(57 urte)

Bai, aldatzen ari da. Lehen hotz gehiago egiten zuen eta orain, berriz, askoz gutxiago.

## beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE



## EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.  
Offset industrialia

Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Igualatoroa .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 (Txanda hartzeko) .....77 03 46  
 .....77 07 21  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) .....12 01 62  
 Gasa .....900 40 05 23  
 .....79 78 44  
 .....79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57  
**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....79 87 77  
 KIUB-OMIC .....79 51 55  
**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron .....77 01 05

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 17**  
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz

**Larunbata 18**  
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

**Igandea 19**  
 Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

**Astelehena 20**  
 Egunez eta gauez: Amezua. Sta. Mari-na.

**Asteartea 21**  
 Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

**Asteazkena 22**  
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

**Osteguna 23**  
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.

**17 OSTIRALA**

**ZINEA**  
 "Sirens" 7etan eta 10etan.

**ANTZERKIA**  
 "Errenta" antzezlanaren Bereden 1 antzerki taldearekin. Amaia Antzokian, gaueko 10.30etan. Sarrera: 700 pta. eta 500 pta. gazte txartela-rekin.

**AURKEZPENA**  
 "Arantzazu-Oñati inguruko" hiztegia"ren aurkezpena Gerardo Maruletaren, egilearen eskutik. Oñatiko Udaletxeko pleno aretoan, arratsaldeko 7etan.

**AED-KO BERTSO-ESKOLA**

AED elkarteak 11-14 urte bitarteko neska-mutilentzat bertso-eskola antolatuta du. Ostiral arratsaldetan bilduko da lan-taldea ikasturte amaiera arte. Argibide gehiagorako AEDra zuzendu eta Esterrekin jarri harremanetan. Telefono zenbakia 771228.



**ANTZERKI IKASTAROA**

**AEDko Kultur Taldeak antzerki bat egiteko asmoa du. Interesatzen bazaizue AEDra zuzendu edo dei egin 771228 zenbakira eta Esterrekin jarri harremanetan.**

**18 LARUNBATA**

**ZINEA**  
 "La Pasión Turca" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**ASCHERO MUSIKA SISTEMA**  
 "Aschero" musika sistemaren ikastaroa otsailaren 18 eta 19an. Goizez 10etatik ordu batera, arratsaldeko 3retatik 7etara. Arrasate Musikal akademiako aretoan. Arrasate Musikalek antolatuta.

**AUKEAko SARI BANAKETA**  
 AUKEAko sari banaketa Iturripeko kiroldegian, arratsaldeko 6etan.

**IKASTAROAK**

Jazz dantza ikastaroa martxoaren 4, 11, 18 eta 25ean. Orduetia: arratsaldeko 4.30etatik 6ak arte, Arrasate Musikalen. Prezioa: 3.000 pta. eta ikasle eta langabetuentzat 1.500 pta. Alboka ikastaroa martxoaren 4tik San Juanak arte, goizez, Arrasate Musikalen. Irakaslea: Karlos Subijana. Prezioa: 2.000 pta. eta 1.000pta. ikasle eta langabetuentzat. Gazte Bulegoak antolatuta.

**19 IGANDEA**

**ZINEA**  
 "La Pasión Turca" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**MENDI IRTEERA**  
 Gorriti, Guratz eta Azpirozera mendirteera, Besaide Mendizale elkarteak antolatuta. Irteera goizeko 7etan Gari-baitik.

**LARRUA LANTZEKO IKASTAROA**

Otsailaren 22an hasi eta asteazken eta ostiraletan goizeko 9.30etatik 11.30etara. Emalea: Marieli Otero. Izen emateko epea otsailaren 16an bukatuko da. Prezio bereziak gazteentzako. Famili eta Gizarte Hezketarako Zentruak antolatuta.

**ARGAZKIGINTZA IKASTAROA**

Hastapen maila martxoaren 7tik apirilaren 5era, astearte eta asteazkenetan. Orduetia: arratsaldeko 6.30etatik 8.30ak arte. ASA taldearen lokalean. Matrikula: 3.000 pta., ikasle eta langabetuentzat 1.500 pta. Sakontze maila, maiatzaren 8tik 25era, arratsaldeko 7.15etatik 9.15etara, ASArekin lokalean. Prezioa: 3.500 pta. eta 2.000 pta. ikasle eta langabetuentzat

**20 ASTELEHENA****ZINEA**

"La Pasión Turca" 7etan eta 9.30etan.

**IGERILEKUA**

Astebete itxita egon ondoren, igerilekuak normal zabalduko ditu ateak.

**21 ASTEARTEA****ZINEA**

"La Pasión Turca" 7etan eta 9.30etan.

**HITZALDIA**

"Deba Garaiko arte eta kultura". Hizlaria: Turlaneko teknikaria. Monterronen, arratsaldeko 4.30etan. Arrasateko Jubilatuko Etxeek antolatuta.

**DIPOSITIBA EMANALDIA**

Kubako diapositiba emanaldia, Banoia, K.I. eta Laixanek antolatuta. Bergarako Kultur-Etxean arratsaldeko 7etan.

**22 ASTEAZKENA****HITZALDIA**

"Deba Garaiko inguruneen bisita turistikoa". Hizlaria: Turlaneko teknikaria. Monterronen arratsaldeko 4.30etan. Jubilatuko Etxeek antolatuta.

**23 OSTEGUNA****ZINEA**

"Acoso" 7etan eta 9.30etan.

**ZINE KLUBA**

"Azul" gaueko 9.30etan Amaia Antzokian. Sarrera: 300 pta. eta 250 pta. gazte txartelarekin.

**EGUEN ZURI****ARETXABALETAN**

"Aratz" atzeratuaren aldeko elkar-tekak antolatuta, arratsaldeko 6.30etan kalejira trikitilariekin, bertan herriko atzeratuek hilada luze bat osatuko dute eta gura duzenok parte hartzera gonbidatuta zaudete. Arratsaldeko 7etan, Herriko Plazan "Goenkale" telesaila Jose Mari, Murtxe, Karlos eta Don Luisek haratuzteetako pregoia irakurriko dute. 8.30ak arte dantzaldia Laja anaien gidaritzan.

**SALSA IKASTAROA**

**Arnaldo Pattersonen eskutik salsa ikastaroa Musakolako saloian. Martxoaren 6tik 17ra, astelehen, asteazken eta ostiraletan, goizez 11.45etatik ordubata arte eta gaueko 7.45etatik 9ak arte. Matrikula 3.000 pta. eta 1.500 pta. ikasle eta langabe-tuentzat. Gazte bulegoak antolatuta.**

**AED-REN BATZAR NAGUSIA**


AED Elkartearen batzar nagusia Monterronen arratsaldeko 7etan.

**IZENDAPENA**


Eskola Politeknikoaren Biteri egoitza Ikasle-Egoitza Nagusi izendatuko du Euskal Herriko Unibertsitateak. Arratsaldeko 7etan ekintza akademikoa, ondoren luntxa.

**GOENKALEKOAK ARETXABALETAN**

Otsailaren 23an arratsaldeko 7etan, Herriko Plazan "Goenkale" telesaila Jose Mari, Murtxe, Karlos eta Don Luisek haratuzteetako pregoia irakurriko dute.

**ERAKUSKETA**

Euskal Pilotaren Erakusketa Ibiltaria otsailaren 20tik 24ra, Monterronen. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbata eta jaiegunetan, 12etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8ak arte.



“Hiritar guztiok ordaintzen ditugun zergetatik, Udaletxetara %10a heltzen da soilik baina azken urteetan administrazioen artean banatzen den diru kopurutik, gero eta gutxiago heltzen da udaletara. Gainera, erabiltzen diren formulek ez dute garantizaten udalek zerga horietatik portzentaia finko bat bereganatzea. Lehendabizi, kupo bat ematen zaio estatuari, gero Jaurlearitza beste zati bat ematen zaio eta geratzen den dirutik %53a ematen zaie udalei. Baina zergen bidez ueste baino diru gutxiago biltzen bada, Diputazio eta Udalek jasan behar izaten dute kalte hori. Gure iritziz, Udalek portzentaia finkoa izan beharko lukete”.

**Xabier Zubizarreta** 95-2-11 Herri Irratia

“Ez dago esaterik PSOEkoak eta ez oposiziokoak garenik. Arrasaten dagoen mekanismoa beste bat da. Arrasaten oposizioa EAJK eta PSOEk osatzen dute eta gobernu taldeari erakusten dióten fidelitasun eza izugarrikoa da, eta horretan datza Arrasateko Udalak dituen arazo garrantzitsuenen zergatia. EAJ bi gehiengoz baliatzen da, gobernu batzordearen gehiengoaz eta izkutuan duen beste gehiengo horretaz, PSOE-EAJrena”.

**Aitor Orobengoa** 95-2-11. Herri Irratia

“Goizeko lehen orduetan kaleak garbi izaten dira baina orduak pasa heinean kaleak zikindu egiten dira. Hori ekiditeko paperontziak erabili behar dira. Honen inguruan, sentsibilizazio kanpaina hasteko asmoa dugu”.

**Jose Antonio Barriocanal** 95-2-11. Herri Irratia

“Trailean Ferixalekuko frontoiaren obrak hasiko dira. Bi lan batera egitea arriskutsua izan zitekeelako ez genuen nahi izan lehenago egitea”.

**Jose Mari Loiti** 95-2-11. Herri Irratia

## Zer eskaintzen die Udalak Alzheimerri

Udalak ez du zerbitzu konkreturik gaisotasun hori dutenentzat. Alzheimerri dute-nek eta horien familiarekoek zerbitzu orokorrak ematen dituen lagutzak jasotzeko aukera dute. Horrela bada, etxez etxeko zerbitzua dago, hau da, gaisoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko langile bat bidaltzen diegu. Bestalde, nahiz eta orain arte gaiso horiek egoitzetan sartzeko aukerarik izan ez duten, gaurko egunean badago aukera hori. Gainera, elbarrituei ematen diegun laguntza ere ematen diegu, etxea euren beharretara egokitzen dugu gaisoak hobeto moldatu daitezen. Udaran, bestalde, familiarekoek oporrak izan ditzaten, Eibarko egoitzan egoteko aukera dago, baina, esan bezala, hori uda partean soilik izan daiteke.



**Olatz Etxabe**  
Udaleko Gizarte laguntzailea

Esandakoaz gain, Afagi dago, Alzheimerri dutenen familiarekoek osaturiko erakundea. Alde batetik aholkularitza eskaintzen du erakunde horrek, legala zein medikoa, autolaguntzarako taldeen sorrera bultzatzen du eta zainzaile eta senideak ere hezi egiten ditu. Horrez gain, gaisotasunarekin zerikusia duten azterketa klinikoak egiteko laguntza ematen du eta zainzaile-senideendako egun libreak lortzen saiatzen da. Erakundeak Donostian du egoitza nagusia baina Udalekin harremanetan dagoenez, erakundetik lor daitekeen laguntzari buruzko informazioa Udalean ere jaso daiteke.

Bukatzeko esan, apurka-apurka gaisotasun honi buruzko informazio gehiago dagoela eta oso berezitasun konkretuak dituzenez, gaurko egunean Alzheimerri zer den argiago dago.

**Hementxe  
beteko duzu  
zure betiko  
ametsa**



Iturriotz, 33 • ARRASATE • ☎ 77 07 41



## Torturaren aurkako eguna

“Ez gaude torturarekin bizi izateko prest” lemapean, hilaren 13a torturaren aurkako eguna izan zen Amnistiaren Aldeko Gestorak antolatuta. Hainbat lagunek ohiko enkartelada egin zuten Sebero Altube plazaren ondoan eta gainera, suziria jarri zuten orain dela 14 urte Carabanchelen hil zen Joxe Arregiren oroimenez. Horrez gain, Mikel Arristia, Xabi Kalparsoro, Gurutze Yanzi, Mikel Zabalza eta Muruetagoiena ere gogoratu ziren. Seberon jarri zuten suziria, aste osoan zehar izan da pizturik.

## Birziklatzea

“Zaborraren inguruko problematika aztertzen” kanpainako arduradunak San Viator ikastolan izan dira aste honetan. Ingurugiro Eskolak eta Mankomunitateak antolatuta, birziklatzeak dakarren abantailen gaineko eskolak jaso zituzten seigarren eta zazpigarren mailako ikasleek. Horrez gain, papera, beira eta pilak uzteko zenbat edukiontzi dauden jakin zuten. Kanpaina horren berri Deba Garaian ikasten duten ikasle guztiek izango dutenez, aurrerago beste ikasle batzuk jasoko dituzte birziklatzeari buruzko eskolak.



## Arrasate Telebistaren 5. urteurrena

Joan zen astelehenean, hilaren 13an, bost urte bete zituen Arrasate Telebistak. Hori dela eta, astelehenean programa berezia egin zen ATBn, bost urteetan izan diren programa guztiak gogoratzeko.

Ostiralean, oster, prentsaurrekoa izan zen eta ARKOko lehendakaria, Iñaki Aranburu, herri telebisten lege berriak ekar ditzakeen ondorioetat mintzatu zen. Lege berri horren gainean egin den zirriborroak esaten duenez, udalek gestio-natu behar dituzte herri telebistak eta gaueko zortzietatik hamabietara ezin da publizitaterik eman.

Jon Aldanondok, ATBko arduradunak, berriz, aurrerantzean eronkarik handiena soinuaren kalitatea hobetzea izango dela esan zuen.

## Jose Mari Zeberioen hitzaldia

Jose Mari Zeberioek, Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusiak, hitzaldia eman zuen AEDk antolatuta otsailaren 14an. Datozen lau urteoi begira Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak dituen helburuak eta egitasmoak azaldu zituen idazkari nagusiak. Zeberioen berbetan, AED bezalako elkarteek garrantzia handia dute euskararen normalizazio prozesuan. Administrazio funtzionarioei buruz, herritarren zerbitzura daudenez, euskara jakin behar dutela esan zuen.



## Amodiozko gutunak

Joan zen asteartean, otsailaren 14an, amodiozko gutunen sari banaketa egin zen Bergarako Zabalotegi aretoan. Aurten 15 arrasatearrek aurkeztu dituzte lanak Berrigarak azken hiru urteetan antolatu duen lehiaketara. Irabazlea Maider Osa arrasatearra izan da; bigarrena Izaskun Arciniega bergararra (Bergarako gutun onenaren saria ere jaso zuen); Kemen Urangak, berriz, akzesita jaso zuen.

## Omenaldia

Uribarriko jubilatuko egoitzako zaharrenei omenaldia egin zieten joan zen asteazkenean, hilaren 15ean. 87 urte baino gehiago dituzten zortzi emakumek eta hiru gizonek jaso zuten omenaldia. Egun berezi hori ospatzeko, merienda izan zen eta omenduei opari bana eman zieten.

### JAIOTZAK

- Jon Azpillikueta Carasatorre. Otsailaren 2an.
- Nerea Mellado Servide. 5ean.

### EZKONTZAK

- Rafael Bastardo Arjonilla & María Angeles Zabaleta Pierrugues. Otsailaren 11an. Zibilez.

### HILDAKOAK

- Enrique Antonio Pisón Caifán. Otsailaren 3an. 75 urte.
- Marcos Urriategi Maiztegi. 4ean. 72 urte.
- Gregorio Izquierdo Pérez. 12an. 91 urte.

**Lore**  
Lurrindegia


Olarte kalea, 10 ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 99

**HAURTOKO**  
Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90  
ARRASATE

*Epelde*

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24      Maixu Arano, 8  
Tfnoa: 79 19 71      Tfnoa: 79 26 23



\* URTZI MENDIZABAL

## Abiadura Handiko Trena Udalatxen

**Azken** bolada honetan, badirudi Euskal Herrian proiektu handiak burutu nahi edo burutzen ari direla eraikuntza mailan. Hauen artean bik, Urbina-Maltzaga eta Abiadura Handiko Trenarena (AHT) berebiziko eragailu sinergikoa izango lukete Deba Garai bailaran.

Euskal Herrian AHTren trazaketak euskal Y-a ere deituak, 128 kilometroko luzera du lurrazpitik eta beste 217 kilometro lurrazaletik. Hitzak dioen bezala, Y horren elkarze-puntua Garagarta ondoko Kobate harrobi inguruan koka daiteke, ondoren 6'5 eta 4 kilometroko bi tuneletan banatzen delarik. Seguraski, Udalatx nola zultzen den ikustek Arrasatear asko ernaraziko du. Zentzu horretan, gauza batzuk kontutan hartzekoak dira:

- Eusko Jaurlaritzarentzat egindako ikerketen arabera, Udalatx garrantzi ekologiko handiko leku deklaratu da duela gutxi, Euskal Autonomi Elkartearen interesa duten Lekune eta Ere-mu naturalen Katalogoan sartu delarik. Geologia mailan, hemen ugariak baina orokorrean eskasak diren Urganiorreko (Behe-Kretazikoa) kareharri arrezfaletaz osaturik dago, kars-

tifikazio prozesu aurreratuan, han-hemenka ikusten diren pitzadura eta zulo ugariak erakusten digutenez. Landaredi mailan, egoera erlikialean dagoen kantauriar artadiaren kontserbazio egoera ona da, espezie arraroen presentzia ere aipatzeko delarik, hala nola *Cerastium pumilum*, *Arabis auriculata*, *Epilobium duriaei*, *hagina bera* (*Taxus baccata*) eta abar. Gainera endemismo-gradu handiko espezieak ere baditu, harkaitz-labarretan aurkitzen den *Saxifraga trifurcata* esaterako, landare hau Kantaurialdeko Ekialdean soilik aurkitzen delarik, populazio txikietan gainera. Fauna mailan, aipatzekoa da basurdearen eta okil berdearen (*Picus viridis*) presentzia, hegazti eta



*“Udalatx asko aldatuko litzateke AHTk zeharkatuko balu.”*

mamifero harrapakarien presentzia konprobatu gabe dagoelarik. Nabarmena da burdin-txoriaren (*Prunella collaris*) eta mendi-berdantzaren (*Emberiza cia*) nidifikazioa, mendi txorria (*Serinus citrinella*) habigile posiblea den bitartean.

- Arkeologian, balio handiko aztarnategiak daude, hala nola Oterreta II, Lezetxe, Lezetxiki, Lezetxikiko Harpea eta Kobatxo. Lezetxiki, adibidez, Euskal Herrian dagoen giza aztarnarik zaharrenetarikoa da, 70.000 urte duen Neanderthal eme baten humeroak frogatzen duenez. Arrisku bizian daude, lehen aipatu den legez, Euskal Y-aren elkarze-puntuaren hurbiltasuna dela eta.

- Kulturen, Udalatx aspalditik dago erroturik Arrasatearren ariman. Udalaitzera gutxienez behinjoan diren arrasatearrak asko dira. Bere itxura gris tente eta ikusgarriak, artadiaren berde-iltuntasunaz inguratutik, sakonki barneratzen den naturaltasun kutsua ematen dio inguruneari. Nork imaginatzen du Arrasate Udalatx gabe? Guzti honengatik Udalatxen balio zientifikoa, didaktikoa, erre kreatiboa eta rurala handia dela esan daiteke.

- AHT, abiadura izugarria eskatzen duen trena izanik (250 km/o-tik gora), ez da herrietan gelditzen, eta gainera infra-estruktura handiak eskatzen ditu. Ondorioz inpaktu ekologikoa handia da, lur sail handiak mugitu behar direlako. Horregatik Udalaitz asko aldatuko litzateke AHTk zeharkatuko balu.

- Zentzu horretan, ez al da komenigarriagoa tren lokal bat, bailarako jendearentzat aproposagoa? Gainera, abiadura hain handiak eskatuko ez litzukenez, askoz ere ekologikoagoa izango litzateke. Dagoen garraio motarik ekologikoenetarikoa.

\* **BIOLOGIAN LIZENTZIATUA**

## USTEAK USTE

**EUSKARA ETA LANA Herriak eta herriarentzat sortua. Arrasatear batzuri esker, banaka batzuri esker, beti bezala, euskararen munduak militantziaren beharra duelako oraindik, zoritxarrez. Zorioneko ATB. Zure anaia ARRASATE PRESS bezala, euskararen alde borrokatzen dugun premia gogorazteko sortu zinen. Baina, ez, ezin esan, ordea, kasu gehiegi egiten dizugunik, ez. Enpresa mailan, batez ere. Krisia dagoenean, euskarak beharko litzukeen neurriak ez dira hartzen, dirurik ez dagoelako. Egoera hori hobetzen denean, gure erosokeriak uzten ez digulako. Hori bai, ondo zainduko dugu geure irudia, komeni egiten zaigu eta. Horretarako, hainbat izenburu euskaraz jarriko dugu han eta hemen. Laburpen batzuk ere ondo gelditzen dira. Zer esanik ez, sarrera gisa, eta gogortuz gero, diskurtso bakoitzean euskara dotorean lau hitz irakurtzea. Gaizki, gaizki gabiltza. Inkoherentzia edota faltsukeria bizi gara. Detailtxo horiek gure benetako aurpegia estaltzeko maskara bat beste-rik ez dira. Euskarak hori baino gehiago eskatzen digu. Gogoetatik ekintzara pasatzeko garaia da. Zertarako, bestela, eskoletan egiten ari den ahalegina. Ezertarako ere? Bitartean, ATB laguna, aurrera jarraitu behar, zure eguneroko lana guztiz beharrezkoa baitugu. Eta... zorionak!!**

**JOSE RAMON ELORZA**

**FELIPE  
MADINA**

**ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 78

• **ARTEA** •

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95  
ARRASATE

**“PAL”**

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA

**SOLARIUMA**

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 78



Eskola Politeknikoan ikasten duten 320 ikasle bizi dira Biteri egoitzan.

## EHUK Ikasle-egoitza nagusi izendatuko du Biteri egoitza

Euskal Herriko Unibertsitateak, ikasle-egoitza nagusi izendatuko du Eskola Politeknikoaren Biteri egoitza datorren ostegunean, hilaren 23an. Orain arte ikasle-egoitza txikia izan da baina iazko abenduan sinatu zuten akordioarekin, EHUra atxekiko den Gipuzkoako lehena izango da Biteri egoitza.

Ekintza kulturalak antolatzen dituzten egoitzek izan dezakete ikasle-egoitza nagusi titulua eta hori lortzeko, urtean zehar egindako ekintzei buruzko memoria aurkeztu beharra dago Eusko Jaurlaritzan eta EHU eta gero horiek erabakitzen dute titulua ematea ala ez. Izendapen berri horrekin harreman gehiago izango dute Euskal-Herriko zein estatuko beste ikasle-egoitza nagusi batzuekin, eta horiek antolatzen dituzten lehia-ketetan parte hartzeko aukera ere izango dute. Era berean, hemendik aurrera EHUtik ere jasoko dituzte dirulaguntzak ekintzak antolatzen jarraitzeko.

Biteri egoitzan, Eskola Politeknikoan ikasten duten 320 ikasle bizi dira eta hogeitalde inguru daude ekintza desberdinak antolatzen: argazki taldea, dantza taldea, abesbatza, gimnasioa, saloi jokoak, banda, euskara batzordea, tuna, irratia... Ikasle bakoitzak, beraz, interesatzen zaion ekintzan ematen du izena. Taldetan banatuta daude eta ikasleak eurak dira antolatzaileak.

Izendapena egiteko ekitaldia arratsaldeko 7etan hasiko da eta egoitzako berrehunen bat ikaslek eta beste toki batzuetatik etorritako beste ehun lagunek hartuko dute parte. Horrez gain, hainbat agintari ere etorriko da, hala nola: Juan Jose Goiriena, EHUko errektorea, Jabier Retegi, Industri sailburua, Juan Mari Otaegi, Euskadiko Kutzako lehendakaria, Ignacio Lakunza, Eskola Politeknikoko zuzendaria eta kooperatibetako hainbat arduradun izango dira. Aipatzekoa da, protokoloak halaxe eskatzen du, mutilek trajea jantzi beharko dutela derrigorrez.

### AEDren batzar orokorra

Urteko batzar orokorra egingo du AEDk otsailaren 23an. Honako puntuak izango dira aztergai batzar horretan: 94ko jardueraren laburpena, 94ko diru kontuen onarpena, 95erako aurrekontuen onarpena eta Zuzendaritza Batzordearen berriketa. Batzarra arratsaldeko 7etan hasiko da Monterronen.

### 60.000 pta. HIES Ekimenarentzat

Arrasateko Gaztetxeak 60.000 pta. eman dio HIES Ekimena elkarteari. Gabonetan antolatu zuen merkatutik atera du diru hori eta, hasieran pentsatutako moduan, elkarte horri eman dio. Arrasateko HIES Ekimeneko arduradunen esanetan, oso pozgarria da ekintza horretan parte hartu duten gazteek erakutsi duten elkertasuna.

### Euskaraz

Lan eta Gizarte Segurantzako inprimakiak euskaratu egin ditu Udaleko Euskara Zerbitzuak. Dagoeneko INEMek dituen berrogeita bederlatzi inprimaki euskaratu dira: lan kontratuak, nominak, TC1a, TC2a eta TC2-1a. Oraingoz Gipuzkoako bederlatzi udalerrik eskatu dituzte inprimakiak eta Udalak, bestalde, hegoaldeko 300 erakunderi eman die itzulpen horren berri.

**PUB HAIZEA**

arrasate

**"EDERTU" ileapaindegia**

San Andres auzoa  
Tfnoa: 79 04 28

**Hilbera kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE



Martxoaren 28an izango dira udal hauteskundeak.

## Gallastegi eta Jimeno udal hauteskundeetarako hautagai

EA eta PSE-EE alderdiek aukeratu dituzte maiatzaren 28an egingo diren udal hauteskundeetarako hautagaiak. EAtik Isabel Gallastegi izango da alkategaia. Isabelek 27 urte ditu, abokatu eta Udaleko zinegotzia da. Bigarrena Juan Antonio Barriocanal izango da, hau ere zinegotzia, eta hirugarrena, Pello Urizar.

PSE-EEko alkategaia, berriz, Ignacio Jimeno izango da, gaurko egunean Diputazioako Ingurugiro zuzendaria dena. Bigarrena, Paco García, zinegotzia eta talde sozialistaren bozeramalea. Hirugarrena Rafael

Gómez, Al Andalus elkarteko presidentea; laugarrena Jon Iñaki Lasa eta bostgarrena, Rafi Romero.

Gainontzeko alderdi politikoen zerrendak otsailaren bukaeran eta martxoaren hasieran ezagutuko dira. Ezker Batua alderdiak, otsailaren 24an egingo duen batzarrean itxiko du zerrenda. HB eta EAJ alderdiek, ostera, zerrenda hile amaieran aurkeztea espero dute.

Bukatzeke esan, aurkeztea erabakiz gero, PPK ere hile bukaeran emango duela zerrendaren berri.

### Hauteskundeak Gelman

Otsailaren 15ean, joan zen asteazkenean, hauteskunde sindikalak izan ziren Gelma lantegian. Emaizak honakoak izan dira: UGTk 6 ordezkari lortu ditu, ELAk 4 eta CCOOk 3. Gelman 322 langile ari dira lanean. Hauteskunde prozesua abenduan bukatuko da eta oraindik inguruko lantegi batzutan ordezkariak aukeratzeko daude.

### Hauteskundeak Leintzen

Lehendakaria aukeratzeko hauteskunde prozesua hasi da Leintz, ehiza eta arrantza elkartean. Aukeraketarako hauteskunde batzordea eratu da eta egutegi elektoralak ezarri dute. Lehendakari gaien aurkezpen epea otsailaren 13an hasi zen eta otsailaren 27an bukatuko da. Hautagaiak zeintzuk diren martxoaren 8an emango da ezagutzera eta hautaketa martxoaren 22an egingo da. Batzordeko presidentea Heriberto Abasolo da, idazkaria Yosu Gallastegi eta bokala, Anton Azkarate.

### Langile industrialak behar dira Gipuzkoa osorako

1. mailako ofizialak, 2. mailako ofizialak eta hurrengo sailetan esperientzia duten peoi espezializatuak

- Hainbat tornu (eskuzkoak, automatikoak, zenbakizko kontrola, etabar).
- Makineria industrialaren muntaia.
- Mandrinatzeko makinak (eskuzkoak eta automatikoak).
- Soldadura (MIG, TIG, gas-garra, aluminioa, kobrea, elektrikoa, etabar).
- Fresatzeko makina (eskuzkoa eta automatikoa).
- Orekatzeak, kalibratzeak, egokitzeak.
- Galdaragintza.
- Iturgintza.
- Arozgintza orokorrean.
- Elektrizitatea.
- Igeltseritza.
- Obrarako langileak.

Curriculum eta nortasun agiri neurriko argazkia bidali Donostiako 1.846.20.006 posta kutxatilara, kartazalean postuaren izena eta bizilekua adieraziz.



### Taberna-jatetxea Kafetegia

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behea





Iturriotz kaleko bulegoa izango da zabalik goizez eta arratsaldez.

## Arratsaldez ere zabalduko du bulego bat Euskadiko Kutxak

Euskadiko Kutxak Iturriotz kalean duen bulegoa zabalik izango da arratsaldez ere. Ordutegi berria noiz ezarriko den zehaztu barik dagoen arren, otsailaren bukaera alde-  
era edo, asko jota, martxoaren hasieran hasi nahi dute sistema horrekin arduradunek. Modu horretan, hemendik aurrera goizeko 8.30etatik eguerdiko 2etara eta arratsaldeko 4retik 7.45etara izango da zabalik Iturriotzeko bulegoa.

Pedro Mari Ruiz de Azua bulegoaren zuzendariaren berbetan, bezeroek hala eskatzen dutelako zabalduko dute arratsaldez bulegoa: "Gure ordutegia ez da erosoan lan egingen dutenentzat. Beti ibili behar izaten dute

lanetik lehenago irteten edo aisialdiari orduak kentzen kutxara etorri ahal izateko". Arratsaldez lan egingo dutenak orain dauden langileak izango dira. Hau da, egun osoan lan egin nahi dutenak aurkeztu dira pertsonal aukeraketara eta horien artean egin da hautaketa.

Arratsaldez zabaltzeko ideia orain dela bi urte entzun zen lehen aldiz Euskadiko Kutxaren batzar batean, baina nahikoa eztabaidatua izan zenez, iazko urrian hasi zen asmoa gauzatzen. Donostian bi bulego izaten dira zabalik egun guztian eta Arrasatekoaz nahasi, Gipuzkoako beste sei bulegok ere irekiko dituzte atek arratsaldez.

### Ostalaritza Eskolaren jatetxea

Ostalaritza Eskolak jatetxea zabalduko du Oñatin otsailaren 20an. Zentru horretan ikasten duten ikasleek praktikak egin ditzaten eta euren prestakuntza hobea izan dadin zabalduko da jatetxea. Oñatiko beste jatetxeei konpetentziarik ez egiteko, gainera, hitzarmena sinatu dute herriko Ostalarien Elkartearekin. Horren arabera, astelehenetik ostiralera izango da zabalik jatetxea, ez du eguneko menurik emango, Ostalaritza Eskolaren egutegi berbera izango du eta egunero, gehienez, hogeita hamar bezero hartuko dituzte. Jatetxe berria Antixena deitzen da. Ostalaritza Eskola 1991an sortu zen Eskola Politeknikoaren babespean.

### Karrila itxita

Otsailaren 24ean, Eskoriatzako saihesbideko karril bat itxita izango da goizeko zortzietatik ordu batera. Tunela garbitu behar dutela eta egongo da itxita.



# LASAGABASTER


ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



**Lorentxo Altubek** musika tresnak egitea du afiziotzat. Txalaparta izan zen egin zuen lehen tresna, duela bederatzita urte. Txalaparta ostean, albokak, adarrak, ttunttunak, xilofonoak eta toberak egin ditu. Orain musika tresna polita bezain berezia egiten ari da, arpa.


**Aretxabaletako ehiztari batek birigarro bat akabatu zuen iaz. Txoriak eraztuntxo bat zeukan hankan eta Aranzadik horren azterketa egin du. Azterketa horien emaitza orain dela gutxi jakin da, eta dioenez, birigarroa Finlandiatik etorri zen, Helsinkitik hain zuzen. 2.702 km. hegan eginda gero iritsi zen birigarroa geurera.**



Epelde

**Juan Luis Okina eta Maite Arribas** arrastarrak urtarrilaren 21an ezkondu ziren. Zorionak bikote!

Erdiko kale. 79 19 37




Ferrerías. 79 87 62

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



**ERAIKUNTZAK**

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118



Arrasate Telebistak 5 urte bete zituen astelehenean. 5. urteurrena ospatzera aurkezle izandako guztiak

etorri ziren. **Anne Igartiburu** eta **Jon Andueza**, gaur egun telebistako bi izar, hemen

izan genituen. Annek eta Jonek etxe honetan eman zituzten lehen urratsak, eta ez dute, ez, ahaztu.

Besaide Mendi Elkarteak antolatuta, eskolaz kanpoko kirol-proiektuaren barnean, mendi irteerak egiten dituzte 7. eta 8. mailako ikasleekin. Joan zen asteburuan Kur-

tzebarrira joan ziren. Besaideko begiraleak **Mikel Pereda** eta **Igone Arregi** izan ziren. Ikasleak berriz, **Jon Alzelai**, **Amaia Agirre**, **Josu Juan** eta **Aitziber Lopez**.



## IZEN PROPIOAK

● **Alvaro Esparza**, 41 urte, arrasatearra joango da Bergarako PSE-EEko zerrendan alkategai. Arrasateko Udaletxean egiten du lan, Hirigintza saileko administrari.

● **Javier Mongelos**, MCCko Kontseilu Orokorreko presidentea, jubilatuta egingo da urrian eta bere kargua **Antonio Cancelok** beteko du.

Javier Mongelos 20 urtean izan zen Fagorreko Zuzendari Orokorra eta 1990etik gaur arte, MCCko Kontseilu Orokorreko presidentea izan da.

● **Iñigo Andola**, 22 urte, gabiriarra izango da ATBko kamara eta teknikari berria. Irudi eta soinu ikasketak egin ditu Andoainen. Pako Altube ordezkaturko du Iñigok.



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**Plus Ultra**  
taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 57

● **Txitxinpe** ●  
Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

# Gida 95

L  
e  
h  
i  
a  
k  
e  
t  
a



**Oraindik jabetu ez bazara ere, GIDA 95 lehiaketa jarraituz opari ederrak irabaz ditzakezu!**  
**Astero astero, 10.000 ptako erosketa txartela jokuan dago, beraz...**

**GIDA HARTU ETA ASMATU!!**

*Dagoeneko PILAR ERAÑAK Lasai koltxoidendako 10.000 ptako erosketa txartela irabazi du.*  
**ZORIONAK!!**



Futbito 94-95

Txapelketa

Babesleak: JMA, Kajoi taberna eta Arrasate Kirolak

ZALDIBAR  
ZALDIBAR

## Bi jardunaldi baino ez

Bi jardunaldi baino ez dira falta lehen fasea bukatzeko eta, dagoeneko, badakizkigu sailkatuta dauden taldeen izenak. A taldean; Adelaida Haizea, Fosforos, Zuloak, Zotz, Bukanak eta Cerveceria Leintzek lortu dute lortu beharrekoa. B taldean, Nuevo taberna, Suministros Ugarte eta Trikiti ditugu bigarren fasean. C taldean, Irati STS, Equis, Lorategi Potroak, Autos Muru, Artzankos Udalaitez eta Orlando Piratas. D taldean, oste-

ra, Argi Ibili, AC Surcos, MSM Ingenieria Integral, Mikelos, Los Heredia, Ojo Avisore eta Diego Antonio Iriztu. A eta D taldeetan postu bat baino ez dago jokuan. C taldean sei lehenak daude sailkatuta, beraz, bi postu erabakitzeke. B taldean hiru lehenek baino ez dute bigarren faserako txartela eskuratu. Horrela bada, bost postu daude jokuan une honetan, zortzi talde lehian eta bi jardunaldi jokatzeko. Ez dago gehiago eskatzerik!



**Felipe**  
**Arrizabalaga**  
**AROSZTEGIA**

- SUKALDE-ALTZARIAK
- SARRERAKO ETA BARRURAKO ATEAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN

Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

**A taldea**

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ADELAIDA HAIZEA	17	13	2	2	99	29	<b>28</b>
FOSFOROS	17	12	2	3	72	33	<b>26</b>
ZULOAK	17	11	4	2	76	37	<b>26</b>
ZOTZ	17	12	2	3	71	45	<b>26</b>
SALENCO Y KON	17	13	0	4	76	44	<b>26</b>
BUKANAK	17	11	3	3	75	58	<b>25</b>
CERV. LEINTZ	17	12	1	4	95	37	<b>25</b>
HIREI	17	7	3	7	74	54	<b>17</b>
ARRASATE KIR.	17	7	3	7	75	63	<b>17</b>
GANBELAS	17	7	2	8	61	49	<b>16</b>
KRISKIBALDA	17	8	0	9	52	79	<b>16</b>
ATERPE	17	7	1	9	55	63	<b>15</b>
INSERT COIN	17	5	3	9	79	80	<b>13</b>
FRAGUEL GOL	17	5	3	9	55	68	<b>13</b>
LOS DALTON	17	5	3	9	55	74	<b>13</b>
ASTOEN VILLA	17	4	3	10	52	88	<b>11</b>
EZT. EGIN ARTE	17	3	4	10	45	91	<b>10</b>
ILUNA TABERNA	17	3	1	13	42	109	<b>7</b>
BAYER LEINTZ	17	2	2	13	40	92	<b>6</b>
STRAUSS	17	2	0	15	46	102	<b>4</b>

**B taldea**

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
NUEBO TABERNA	17	13	2	2	105	44	<b>28</b>
SUM. UGARTE	17	13	2	2	76	32	<b>28</b>
TRIKITI	17	12	2	3	99	29	<b>26</b>
UGLYS TXINATO	17	10	3	4	86	42	<b>23</b>
TOTEM	17	10	3	4	78	39	<b>23</b>
PEPELUS	17	11	1	5	72	44	<b>23</b>
PUB PEOPLE	17	11	1	5	93	59	<b>23</b>
TXEYENEX	17	10	2	5	71	47	<b>22</b>
DANOK LAGUN	17	9	4	4	70	44	<b>22</b>
LOS DIMY	17	9	3	5	80	45	<b>21</b>
PETROLEROS	17	9	3	5	69	44	<b>21</b>
BERANGO SUK.	17	9	1	7	68	50	<b>19</b>
ANBOTOSTE	17	6	3	8	47	55	<b>15</b>
NO COMMENT	17	4	4	9	48	91	<b>12</b>
LA BANDA	17	3	2	12	44	98	<b>8</b>
TOVARITX	17	3	1	13	23	72	<b>7</b>
ORKATZ	17	2	1	14	34	106	<b>5</b>
ARRASATE ZOO	17	2	1	14	38	94	<b>5</b>
EZKIÑ. HONTZAK	17	2	1	14	29	106	<b>5</b>
MONTERREY TAB.	17	1	2	14	41	130	<b>4</b>

**C taldea**

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
IRATI STS	17	15	0	2	97	28	<b>30</b>
EQUUS	17	13	1	3	83	42	<b>27</b>
LOR.I POTROAK	17	11	2	4	63	30	<b>24</b>
AUTOS MURU	17	11	2	4	67	36	<b>24</b>
ARTZANKOS UDA.	17	11	2	4	57	42	<b>24</b>
ORL. PIRATAS	17	11	2	4	76	41	<b>24</b>
KE OXTIAS	17	10	1	6	64	67	<b>21</b>
EX. LETE	17	10	0	7	59	38	<b>20</b>
PERRAHOTSA	17	9	1	7	44	45	<b>19</b>
NABARROS	17	9	1	7	74	61	<b>19</b>
FRANTZISKANNER	17	8	2	7	59	55	<b>18</b>
JOTAKABAU	17	6	5	6	47	53	<b>17</b>
KOKA JUNIORS	17	6	2	9	41	58	<b>14</b>
LEYA	17	5	1	11	61	91	<b>11</b>
BODISCA	17	5	0	12	37	48	<b>10</b>
BANEUKO	17	4	2	11	37	59	<b>10</b>
TXOKO TABERNA	17	3	2	12	29	88	<b>8</b>
DKB	17	4	0	13	34	69	<b>8</b>
POTROSORRI	17	3	0	14	38	94	<b>6</b>
FOTO IMAGEN	17	2	2	13	35	57	<b>6</b>

**D taldea**

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	17	16	0	1	115	36	<b>32</b>
AC SURCOS	17	14	1	2	101	55	<b>29</b>
MSM INGENIER	17	12	1	4	81	41	<b>25</b>
MIKELOS	17	11	2	4	73	37	<b>24</b>
LOS HEREDIA	17	11	1	5	81	54	<b>23</b>
OJO AVISORE	17	11	1	5	70	50	<b>23</b>
D.A IRIZTU	17	10	3	4	70	51	<b>23</b>
TRONKOTEAK	17	7	5	5	56	66	<b>19</b>
BORROCK'N ROLL	17	8	3	6	63	51	<b>19</b>
SOKOAKOAK	17	8	2	7	55	57	<b>18</b>
LAUTHERBRUNER	17	8	0	9	66	55	<b>16</b>
SUKAR	17	5	3	9	68	84	<b>13</b>
ALTZA PORRU	17	6	1	10	66	82	<b>13</b>
KAKAJAURI	17	6	1	10	50	72	<b>13</b>
B.Z SISTEMAS	17	5	2	10	35	55	<b>12</b>
ANORTHOSIS	17	5	0	12	28	37	<b>10</b>
ELISABETH	17	5	0	12	36	84	<b>10</b>
MOTZ	17	4	2	11	57	77	<b>10</b>
TEODOLITO	17	2	1	14	43	109	<b>5</b>
RESAKAS	17	1	1	15	36	97	<b>3</b>



**URONDO**  
elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



**Partidurik erakargarrienak: Txeyenexek eta Trikitik jokatuko dute elkarren kontra zapatuan, Zaldibarren goizeko 9etatik aurrera. Zapatuan baita, baina Iturripe An, Zotz eta Arrasate Kirolak izango ditugu nor baino nor. Neurketa arratsaldeko 6etan jokatu da. Domekan, bestalde, Suministros Ugarte eta Pub People izango ditugu aurrez aurre, goizeko 11etan Iturripe An.**

**BELARRIRA**

◆ **Zigorra.** Altxa Porru taldeari bi puntu kendu dizkiote epaitu behar zuen partiduan aurkeztu ez zelako. Bukanak eta Fosforosen arteko neurketa epaitu behar zuen zapatuan arratsaldeko 7etan.

◆ **Kanporatuta.** A taldeko Salenco y Konpañia eta Los Dalton taldeak txapelketatik kanpo daude. Los Dalton taldeak Astoen Villaren kontra jokatu behar zuen zapatuan eta Salencok Aterperen kontra. Bi taldeetan hiru jokalarri baino ez ziren aurkeztu eta beste talde batzuetako jokalariez baliatuz partidua jokatu egin zen arren, hirugarren talde batek inpugnazioa jarri zuen eta txapelketatik kanpo uztea erabaki dute antolatzaileek. Inpugnazioa ez dute Astoen Villa taldeak eta Aterpek, hau da, aurkari zuzenek jarri, hirugarren batek bazik.

◆ **Abisua.** Ojo Avisore eta Txeyenex taldeek abisua jaso dute, partiduetan izaten duten jarrera nahiko gogorra delako. Hurrengoan kalera, kontuz ibili!

**EMAITZAK**

**A taldea**

- Hirei 2 - Fraguél gol 2
- Zotz 4 - Zuloak 1
- Cerv. Leintz 6 - Arrasate Kirolak 2
- Iluna Taberna 7 - Eztanda egin arte 5
- Strauss 1 - Adelaida Haizea 8
- Bayer Leintz 1 - Insert Coin 7
- Kriskibalda 1 - Ganbelas 8
- Astoen Villa 4 - Los Dalton 4
- Bukanak 5 - Fosforos 7
- Salenco y Komp 3 - Aterpe 5

**B taldea**

- Sum. Ugarte 3 - Totem 2
- Txeyenex 1 - Pub People 5
- Uglys Txinato 3 - Trikiti 2
- Ezkiñako Hontzak 1 - Nuevo Taberna 15
- Monterrey taberna 5 - La banda 6
- Los Dimy 2 - Danok Lagun 1
- Petroleros 5 - Tovarixtx 1
- Pepelus 4 - Arrasate Zoo 3
- Orkatz 0 - No Comment 6
- Anbotoste 0 - Berango Sukaldeak 6

**C taldea**


- Orlando Piratas 3 - Baneuko 1
- Irati STS 1 - Foto Imagen 0
- Equus 6 - Koka Juniors 4
- Potosorri 0 - Frantziskanner 5
- Autos Muru 3 - Jotakabau3
- Perrahotsa 6 - Txoko Taberna 1
- DKB 0 - Ex. Lete 4
- Nabarros 3 - Artzankos 3
- Lorategi Potroak 11 - Leya 2
- Bodisca 0 - Ke Oxtias 1

**D Taldea**

- Mikelos 1 - Resakas 0
- Kakajauri 4 - Sukar 4
- Motz 1 - Argi Ibili 7
- Altxa Porru 5 - Lautherbrunnen 2
- MSM Ingenier 2 - AS Surcos 3
- Borrock'n Roll 1 - Anorthosis 0
- D. A Iriztu 3 - Ojo Avisore 4
- Sokoakoak 6 - Teodolito 3
- Elisabeth 1 - BZ sistemas 0
- Los Heredia 2 - Tronkoteak 4

*Casa Ceciaga*

**Ihauteri  
hauetan ere  
bertan  
aurkituko duzu  
mozorrorik  
egokiena.**



**Karnabal martitzen  
gauean  
10etatik lera ere  
zabalik!!**

Maalako Arrabala, 3 ARRASATE TFNOA: 79 12 62

**ASTEBURU HONETAN**

**Larunbata 18**

**Zaldibar**

- 8.50 Txeyenex - trikiti
- 10.00 Hirei - Zuloak
- 11.00 Orkatz - Anbotoste
- 12.00 Borrock 'n Roll - Ojo avisore
- 13.00 Strauss - Insert Coin
- 14.00 Motz - Lautherbrunnen
- 15.00 Baneuko - Ke Oxtias
- 16.00 Mikelos - Sukar
- 17.00 Fraguel Gol - Aterpe
- 18.00 Totem - Berango Sukaldeak
- 19.00 Bayer leintz - Ganbelas

**Ituripe A**

- 12.00 Autos Muru - Txoko taberna
- 13.00 Monterrey taberna - Danok lagun
- 14.00 Cerv. Leintz - Eztanda egin arte
- 15.00 Altxa Porru - Ac Surcos
- 16.00 Petroleros - Arrasate Zoo
- 17.00 DKB - Arrasate Kiroalak

**Ituripe B**

- 12.00 Perrahotsa - Ex. Lete
- 13.00 Sokoakoak - BZ Sistemas
- 14.00 Uglys Txinato - Nuevo taberna
- 15.00 Irati STS - Koka Juniors
- 16.00 Ezkiñako Hontzak - La Banda
- 17.00 Iluna Taberna - Adelaida Haizea
- 18.00 Kakajuri - Argi ibili

**Igandea 19**

**Zaldibar**

- 8.50 Elisabeth - Los Heredia
- 10.00 Potrosorri - Jotakabau
- 11.00 D. A Iriztu - Teodolito
- 12.00 Sum. Ugarte - Pub People
- 13.00 Equis - Frantziskanner

**Ituripe A**

- 12.00 Astoen Villa - Fosforos
- 13.00 Los Dimy - Tovarixtx

**Ituripe B**

- 12.00 Pepelus - No comment
- 13.00 Nabarros - Leya



# Golak barra-barra 17. jardunaldian

**Nuevo** taberna, 15 golekin, jardunaldi honetako talderik golea-tzaileena izan da. Nuevo taberna, 28 punturekin, B taldeko lehen postuan dago. Orain arte 105 gol sartu ditu eta 44 jaso. Lorategi Potroakek 11 gol sartu dizkio Leya taldeari. Bi taldek zortzina gol sartu dute: Adelaida Haizea 8, Strauss 1 eta Ganbelas 8, Kriskibalda 1. Bukanak eta Fosforosen arteko neurketa, beharbada jardunaldiko onena izan da. Gaztetxeko derbian jokatu beharreko minutuak jokatu eta gero, Fosforosek irabazi zuen 7 eta 5. Txapelketan gaur arte sartu eta jaso diren golei gainbegirada ema-

nez, Argi Ibilik sartu du gol gehien, 115 guztira; Nuevo taberna bigarren postuan dago 105 golekin; Adelaida Haizeak 99 gol lortu ditu, eta Irati STSk 97. Gol gehien sartu dioten taldea Monterrey taberna izan da: 130 jaso ditu. Iluna Tabernak eta Teodolitok 109na gol jaso dituzte. Orlando Piratas, Lorategi Potroak, Tronkoteak eta MSM Ingenieria Integral taldeek atsedena izango dute 18. jardunaldian.

Bestalde, jakinarazi gura dizuegu, otsailaren 28an Uribe Auzoa txapelketan jokatzeko bilera egingo dela Monterronen, arratsaldeko 7etan.

**VE ECUADOR**

B i d a i a k

**Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06



*Kalitate gorena leihoetan*

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

# Anne Igartiburu

## “Tele 5n aurkitu dudana jendea ez dut inon aurkituko”

**Ikerlanen lanean ari zela ATBra etorri zen “ATBketan” eta “Bakarka” saioak aurkeztera. Bat-batean, ETBra egin zuen salto eta, egun batetik bestera, “Tele 5” kataian aurkitu genuen maite-minduekin batera. Izan ere, Anne Igartibururen bizitzak salto handiak eman ditu. Orain, Tenerifeko karnabalak aurkeztuko ditu. Hala ere, ARRASATE PRESSI eskaini dio “eskusiba”.**

— Elorriotar bat “Tele 5”raino. Nolatan hain urrin?

— Profesioan bide bat hartu behar eta Madrilera joateko aukera etorri zitzaizkidan, joan egin nintzen, kasu honetan, “Tele 5”ra.

— Ikerlanen harreman publiko egiten zenuen lan. Lan horri utzi eta bat-batean telebista munduan sartu zinen. Nondik nora sortu zitzaizun telebistarako grina?

— Beno, ni kasualitatez sartu nintzen Arrasate Telebistan eta, egia esan, ez dakit telebistarako grina handirik daukadan ere. Momentuz ondo pasatzen dut lanean, eta hor nago.

— Arrasate Telebistan ikasi ez zenuen zer ikasi duzu ETBn eta “Tele 5”n?

— Zenbat eta bideo zinta kilometro gehiago egin, gehiago ikasten duzula uste dut nik, batez ere aurkezpen alde-rik: errekursoak izaten eta bilatzen ikasten duzu. Bestalde, Tele 5 erderaz hitzegin behar izan dut eta hori ere

erronka garrantzitsua izan da niretzat, arrotz sentitu nahiz eta. Neure buruarengan konfidantza eta ziurtasuna izaten ikasi dut, batez ere.

— Akordatzen zara ATBrenkin Madrilen zaudenean?

— Bai, askotan akordatzen naiz. Pentsa, Madrilen, lanean eta gainera apostu gogorra egiten. Hasieran oso gogorra egin zitzaidan. Bakarrik nengoen pisu batean eta egunero izaten nituen entsaioak: dantzak, abestiak grabatu, bikoteak ezagutu, bideoak ikusi... oso astuna egiten zaizu eta oso bakarrik sentitzen zara. Borondate handia izan behar duzu eta konfidantza zeure buruarengan: “Nik hau egin egin dezaket eta, gainera, oso ondo” esan behar diozu zeure buruari.

— “Tele 5” kataian ezagutzen dute ATB?

— Beno, badakite ni telebista lokal batean hasi nintzena, eta hitzegiten dugu horri buruz. Dena dela, ez dute telebista lokal baten helburua ulertzen, are gutxiago, emisio guztia euskera hutsean egitea.

— “Tele 5”ra joan zinenen albiste bihurtu zinen. Zer moduz portatu da jendea zurekin?

— Ondo, nire ustez jendea ondo portatu da nirekin. Maitasuna ematen baduzu, zuk ere maitasuna jasotzen duzula esan ohi da, eta oso ondo tratatu naute. Tele 5n aurkitu dudana jendea ez dut inon aurkituko. Oso jende gaztea dago bertan, lan egiteko gogo



handiarekin. Gainera, oso momentu kritikoa heldu naiz Tele 5ra, gauzak ez daude bategi ondo eta egoera txarra denean jendea elkartu egiten da.

— Zer iruditzen zaizu “Tele 5” edukin aldetik?

— Momentu honetan ez dauka edukirik, ez dauka programaziorik ezta programa “fuerterik” ere, zeudenak kendu egin dira. Agian “Verdicto” eta horrelako programa anekdotikoek besterik ez dute kataia salbatzen.

— Zer moduzko audientzia izan du “Una Pareja Feliz” saioak?

— Audientzia oso ona izan du. Estatuan audientzia gehien zuen programa izatera heldu ginen behin, lau milioi lagun-ek ikusten gintuzten.

— Oso programa “larrosa” izan da aurkeztu duzuna...

— Bai. Managerrak niretako programa bat zuela eta oso larrosa zela esan zidanean, ezetz esan nion, baina gero

“zergatik ez?” esan nion neure buruari eta baietza eman nien.

— Kantatzea eta dantzan egitea espero zenuen?

— Ez, gidoiaren exigentzia izan zen hori. Holandar formatoa du programak eta formato horri jarraitu beharra dago: dantzan egin, kantatu...

— Zu zeu ezkontzako zara inoiz?

— Ja, ja, ja... Bai! Momentuz ez dago inor nire bizitzan baina inoiz ezkontzea espero dut.

— Etorrizuneko asmoak?

— “Una Pareja Feliz” bukatu dut eta orain Tenerifera noa bertako karnabalak aurkeztera. Gero, ziur aski, TVE 1erako programa bat prestatuko dut: “Fotogramas” sariari banaketa Imanol Ariaserekin. Gero, ez dakit, agian “Tele 5”n jarraituko dut, edo TVE 1ean... edo agian ATBra bueltatuko naiz!

# Tabernaz taberna

Itxaro Zubillaga

Arrasateko tabernak, publikoak, jatetxeak, diskotekak, kafetegiak, jolas-aretoak eta dastategiak kontatuz gero, 115 daude une honetan.

Hainbat baldintza bete behar da mota horretako lokal publikoa zabaltzeko. Horietariko garrantzitsuena distantzia gordetzea litzateke, hau da, ezin daiteke horrelako lekuri edonon zabaldu. Jarduera publikoak hiru taldetan banatzen dira. Lehen goan tabernak, kafetegiak, dastategiak, jatetxeak eta sukaldaritzak elkarrekin daude. Bigarren multzoan ordutegi berezia duten kafetegiak, edari-diskategiak, publikoak eta jolas-aretoak egongo lirateke, eta, azken taldean, diskotekak, bingoak eta ikuskizunak eskaintzen dituzten dantzalekuak, besteren artean. Lehen multzoko leku bat zabaltzeko, ezinbestekoa da lokaletik lokalera 30 metroko distantzia egotea. Bigarren taldekoen artekoa 200 metrokoa izan behar du gutxienez eta 300 metro hirugarrenekoetan. Distantzian baldintza bete ondoren, baimena eskatu behar da Udale-



Tabernaz taberna ibiltzea ohizkoa egiten zaigu.

an eta, horrez gain, tekniko baten laguntzarekin egindako txosten teknikoak aurkeztu behar du leku hori zabaldu nahi duenak. Udalean hurrengo egin beharrekoa, tramitea litzateke. Tramite guztia Udalak berak egiten du eta horren barruan IGOKAko espediente dago. Eta zer den espediente hori? Jarduera gogaikarriak, arriskutsuak eta osasunerako kaltegarriak zehazten dituen legea. Zabaldu nahi den loka-

lak kalterik eragin ez dezan zein neurri hartu behar den azaltzen du espediente horrek. Betekizun hori eta gero, lokala zabaldu behar den inguruko bizilagunei jakinarazten zaie. Gipuzkoako Boletinean iragarkia argitaratzen da eta hamar eguneko epean jendaurrean egon behar du proiektuak. Epea bukatzean, Osakidetzara bidaltzen da espediente txosten higieneko sanitarioa emateko. Ondoren

Hirigintzako informea egiten da Udalean eta Foru Aldundiko Ingurugiro zuzendaritzara eramaten da azken txostena egin dezaten eta jarduerari behar duen kategoria ezartzeko. Azkenik, obrak egiteko baimena ematen dio Udalak jabeari. Lan guztiak bukatu ondoren, eta Foru Aldundiak ezarritako baldintzak betetzen dituela ziurtatu eta gero, zabaltzeko baimena jasotzen du jabeak.

## Ordutegiak:

Tabernak ixteko ordutegia astegunetan eta asteburu eta jai egunetan.

	Astegunetan	Asteburutan
Taberna eta upeltegiak.....	24etan	1etan.
Jatetxe, erretegi eta antzekoak.....	2etan	3retan.
Kafetegiak, kafe-aretoak.....	1.30etan	2etan.
Edaritegi berezi, Whiskitegi, klub, amerikako edaritegi, pub eta edari-diskategiak.....	2.30etan	3.30etan.
Gazteendako dantzalekuak.....	22etan	23etan.
Diskotekak.....	4retan	5etan.
Kafetegi-Antzerkiak eta antzekoak.....	4retan	5etan.
Ikuskizunak eskaintzen dituzten dantzalekuak.....	4.30etan	5.30etan.
Jolas-aretoak.....	22.30etan	23.30etan.
Bingo-aretoak eta Joku-Etxeak.....	3retan	4retan.
Txokoak eta Sukaldaritzak-Elkarteak.....	2.30etan	3.30etan.


Ekaina, uztaila, abuztua eta irailan, Aste Santuan eta abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra arte, zabaltzeko eta ixteko orduak ordu erdi luzatu ahal izango dira.

### Zarata:

Goian aitatutako lokal batek izan dezakeen gehieneko zarata 40 Db (A)koa da gaueko 10ak arte eta 30 Db (A)koa goizeko 8ak arte.

## Joseba Etxagibel (Monte Taberna)

- **Zein da gehien saltzen den edaria?** Errioxako ardoa eta kafeak.
- **Zein jende mota etortzen da?** 30 urtetik gorako jendea izaten dut.
- **Emakumeak ala gizonak, zeintzuk etortzen dira gehiago?** Denetik etortzen da, baina gizonak batez ere.
- **Telebista piztuta izaten duzue?** Gehienetan bai, kirola dagoenean beti, jendeak eskatu egiten du gainera. Telebista iziouta izatea ohitura bihurtu da.
- **Zer ordutan ixten duzue taberna?** Zabaldu goizeko 10etan eta itxi gaueko ordubatean.
- **Zein musika mota jartzen duzue?** Telebistako musika jartzen dut, VIVA eta MTV kateetan ematen dutena. Modan dagoen musikari ez diogu kasu handirik egiten.
- **Sekula izan duzue arazorik zarata dela eta?** Ez, sekula ez dugu arazorik izan.
- **Joku makinak baduzue?** Txanponjale bat baino ez dugu.
- **Zuritoa, kalimotxoa eta ginkasa zenbatean daukazue?** Zuritoa 70 pta.; kalimotxoa 150 pta., ginkas erdi 275 pta. eta osoa 325 pta.



## Jesus Romero (Kajoi Taberna)

- **Zein da gehien saltzen duzuen edaria?** Garagardoa.
- **Zein jende mota etortzen da?** Asteburuetan eta gauetan jende gaztea etortzen da. Asteazkenean, ostera, denetik.
- **Telebista piztuta izaten duzue?** Arratsalde partean iziouta, eta gauera arte izaten dut. Hiru telebista ditut eta katea desberdina jartzen dut bakoitzean ahots barik. Jendeak eskatu egiten duelako jartzen dugu.
- **Zer ordutegi duzue?** Asteazkenean goizeko 10etan zabaltzen dugu eta ordu batean itxi. Asteburutan 12etan zabalduta eta 3.30 edo 4retan itxi.
- **Zein musika mota jartzen duzue?** Denetik. Modan zer dagoen ere kontutan hartzen dugu, batez ere, asteburuetarako. Denetik izatea gustatzen zaigu. Ez goaz estilo bakarraren atzetik.
- **Sekula izan duzue arazorik zarata dela eta?** Ez, sekula ere ez.
- **Joku-makinarik baduzue?** Txanponjalea eta petakoa.
- **Zuritoa, kalimotxoa eta ginkasa, zenbatean duzue?** Zuritoa 80 pta.; kalimotxoa 175 pta., MG Ginkas erdia 300 pta., Gordonsa 325. Osoak hamar duro gehiago balio du.




## Amalia Espejo (Ispilu Taberna)

- **Zein da gehien saltzen den edaria?** Gargardoa eta kubatak (cacique, rona, Beefeater).
- **Zein jende mota etortzen da?** Jende gaztea dator. Asteburuetan gaztea, eta asteazkenean denetik baina batez ere, 23 urtetik 35 urte bitartekoak.
- **Emakumeak ala gizonak, zeintzuk etortzen dira gehiago?** Gaur egun denetik dator. Duela urte batzuk, berriz, oso arraroren tabernan emakumeak ikustea. Orain, berriz, ez dago desberdintasunik.
- **Telebista iziouta izaten duzue?** Ez dut telebistarik tabernan.
- **Zer ordutegi duzue?** Asteazkenean arratsaldeko 2etan zabaltzen dugu eta 2.30ak arte dugu zabalik. Asteburutan 5etan zabaldu eta 3.30etan itxi.
- **Zein musika mota jartzen duzue?** Ez dugu estilo berezirik, denetik jartzen dugu. Musika ona, hori bai! Modan dagoen musika, makina eta abar ere jartzen dugu, azken finean jendeak hori eskatzen du eta.
- **Sekula izan duzue arazorik zarata dela eta?** Taberna zabaldu genuenean arazo dexente izan genuen zarata zela eta. Azken bolada honetan ez dugu arazorik izan eta horrela jarraitzea espero dut.
- **Joku-makinarik baduzue?** Bideojoku bat baino ez.
- **Zuritoa, kalimotxoa eta Ginkasa, zenbatean daukazue?** Zuritoa 75 pta.; kalimotxoa 150 pta., ginkas erdi 225 eta osoa 350 pta.



## Karmelo Zubillaga (Etxerat Taberna)

- **Zein da gehien saltzen den edaria?** Gargardoa eta kalimotxoa.
- **Zein jende mota etortzen da?** Oso gaztea, 18 urtetik 23 urte bitartera.
- **Emakumeak ala gizonak, zeintzuk etortzen dira gehiago?** Denetik dator, eta edan ere antzera egiten dute.
- **Telebista piztuta izaten duzue?** Eguerdietan bai, batzuetan. Gauetan ez.
- **Zer ordutan ixten duzue taberna?** Asteazkenean goizeko 12etan zabaltzen dugu eta gaueko 12.30ak aldera itxi. Asteburuetan 2.30ak arte zabaltzen dugu.
- **Zein musika mota jartzen duzue?** Denetik jartzen dugu. Euskal Herriko musika gehien bat. Modak, bestela, ez ditugu jarraitzen.
- **Sekula izan duzue arazorik zarata dela eta?** Taberna honetan sekula ez dugu arazorik izan.
- **Joku-makinarik baduzue?** "Txanponjale" bat eta bideojoku bat.
- **Zuritoa, kalimotxoa eta ginkasa, zenbatean daukazue?** Zuritoa 65pta., kalimotxoa 160 pta., ginkas erdi 275 eta osoa 325 pta.





Asteazken zehar entrenatzen ibili ondoren, domekan erakutsi beharko dute jokalariek zertarako diren gai.

## Mondra-Aloñamendi, derbia Atxabalpen

**Mondrak** eta Aloñamendik elkarren kontra jokatu dute Atxabalpen domekan. Neurketa arratsaldeko 4.30etan hasiko da. Talde biek irabazteko premia dute. Mondrak, 26 puntu eta bi positiborekin, sailkapeneko 9. tokoa betetzen du. 23 jardunaldietatik 10 irabazi egin ditu, 6 berdindu eta 7 galdu. Golei dagokionez, 24 sartu ditu eta 24 sartu dizkiote. Urtarrilaren 22an hasi zen bigarren buelta 3. mailan eta dagoeneko 4 neurketa jokatu ditu Mondrak. Arenas eta Balmasedaren kontra gol bateko aldearekin irabazi zuen. Hernaniren kontra, oster, galdu 0 eta 2, eta azken partiduan Tolosa eta Mondra izan genituen nor baino nor eta husnako berdinketa izan zen azken emai-

tza. Datorren domekan, Mondra eta Aloñamendiren arteko partidua izango da ikusgai Atxabalpen. Aloñamendik denboraldia txarto hasi bazuen ere, apurka-apurka bere jokua hobetuaz joan da eta une honetan, 20 puntu eta 2 negatiborekin, 13. tokian dago. Oñatiarrek Durangoren kontra neurtu zituzten indarrak domekan eta Aloñak irabazi egin zion 3. sailkatuari. Hori dela eta, animoz gainezka etorriko dira Atxabalpera eta irabaztea izango da euren helburu nagusia. Derbia bizia eta lehiatsua izango da, zalantza barik. Bizitasun hori zelaian eta harmailetan ere nabaritu egingo da. Horrelako derbietan saltsa eta tentsioa ez da falta izaten eta domekan ere ez da falta izango.

Mondrako emakumeek, berriz, asteburu bateko atsedena izan eta gero, Ostadarren kontra jokatu dute zapatuan. Orain arte 22 partidu jokatu dituzte; hamabost irabazi egin dute, berdin bi eta bost galdu. Sailkapeneko 4. tokoa betetzen dute 47 punturekin. Datorren zapatuko neurketa irabazteko modukoa dirudi. Ostadar taldeak 24 puntu baino ez ditu eta egia esateko, nahiko denboraldi traketse egiten ari da. Mondrako emakumeek liga irabaziko badute, ezin izango dute kale egin falta diren partiduetan. Lagun Onak, Elgoibar eta Zumaiako taldeak ditu Mondrak aurretik. Distantziak murrizteko garaipenak behar ditu derri-gorrez.

### LABURRAK

#### Saskibaloia

**Urbina-Maltzaga** saskibaloitaldeak Basket Ponferrada taldearen kontra neurtuko ditu indarrak zapatuan arratsaldeko 6.30etan, Iturripen. Txus Brizuelaren mutilak ez dabilta oso fin azken boladan, azken minutuan eta gutxigatik izan bada ere, galdu egin dituzte neurketak. Datorren zapatuan bolada txar honi buelta emateko aukera izango dute eta, itxura batean, aurkaria garai-pena lortzeko modukoa da. Ponferrada taldea sailkapeneko 13. tokian dago 22 punturekin, eta orain arte lau partidu baino ez ditu irabazi. **Urbina-Maltzagak 25 puntu ditu; jokatu dituen 18 partiduetatik, 7 partidu irabazi ditu eta 11 galdu.** Arrasateko taldean **Aitor Saez de Viteri izan ezik guztiak egongo dira jokatzeko moduan. Urbina-Maltzaga eta Ponferradaren arteko partidua hasi baino lehen AUKEAko sariak banatuko dira Iturripen. Banakako saria Gaizka Aranegi judokak jasoko du; taldekakoa Urbina-Maltzaga saskibaloitaldeak. Aipamen bereziaren saria, oster, Rosa M. Otxandianok. Sari banaketa arratsaldeko 6etan hasiko da.**

**UDALAITZ**  
**TABERNA**

Erdiko kale, 3 ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 61

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

**M**  
**ARENAZA**

Bizkai, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07

**ARGI PLASTIC**

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30



# Eskubalioa batetik, rugbya bestetik

## PENALTIAK

● **Pilotariak berri pozgarria jaso dute aste honetan. Irailean frontoi berria egiteko lanak hasiko direla agindu die Udalak. Beraz, hemendik aurrera, eskuz eta paletako partiduak etxean tokatzen direnean soilik jokatuko dituzte Armaion; gainontzeko partiduak Iturripen eta Musakolan jokatuko dira. Paletan Arrasate eta Altzak jokatuko dute elkarren kontra zapatuan goizeko 11.30etatik aurrera Musakolan. Eskuzkoak atsedena izango dute asteburu honetan. Otsailaren 25an, berriz, final-laurdenak jokatuko beharko dituzte eta Arrasate 3. tokian sailkatuta dago.**

**Arrasateko** eskubaloi taldeak jeitsiera faseko lehen neurketa jokatuko du zapatuan Vigon. Arrasate eta Redoldela taldeak izango dira aurrez-aurre arratsaldeko 7etatik aurrera. Arrasateko taldean Ricardo Santacristinak ezin izango du jokatu, lan istripu baten ondorioz behatz batean min hartuta dagoelako. Itxura guztien arabera, gainera, baja izango da denboraldi osoan. Gainontzeko jokalariek jokatzeko puntu-puntu daude. Pontevedrako Redoldela ez da talde sendoa eta ez du jokalaririk aipagarririk, hala ere, inoren kantxan irabaztea zaila izaten da, jarraitzaileen presioa gainean izaten delako. Arrasate, dena dela, garaipenaren bila joango da.

Lehen territorialekoek Bidebieta izango dute etsai Donostian. Partidua domekan goizeko 11etan jokatuko da.



Eskubaloikoek partidu garrantzitsua izango dute zapatuan.

Jubenilek, bestalde, Oñatiren kontra neurtuko dituzte indarrak domekan goizeko 11etan.

## RUGBYA

Arrasate eta Elorrio izango ditugu nor baino nor zapatuan. Derbi interesgarria eta lehiatsua izango da, zalantza barik. Elorriarren eta mondrautarren arteko parti-

duak bereziak izaten dira eta zapatuakoa ere horrelakoa izan daiteke. Elorriok Arrasatek baino talde sendoagoa du eta esperientzia handiagokoa. Hala ere, horrek ez du esan nahi Arrasatek partidua galduta duenik, gano-raz jokatzen badute, eta zelaiaren duten onena erakusten badute emaitza pozgarriarekin etor daitezke.

## EMAITZAK

Futbola	Saskibaloia	Eskubalioa	Rugbya
<p><b>3. maila:</b> Tolosa 0 Mondra 0</p> <p><b>2. erregionala:</b> Mondra 3 Mutriku 2</p> <p><b>Jub Ohorezko Liga:</b> Martutene 1 Mondra 1</p> <p><b>Lehen kadeteak:</b> Arrasate 5 - Aurrera 1</p> <p><b>2. Kadeteak:</b> Gazteak 3 Arrasate 5</p> <p><b>Infantilak:</b> Aretxabaleta 1 Arrasate 1</p> <p><b>Hurrengoak:</b></p> <p><b>3. maila:</b> Mondra - Aloñamendi. Igandea. 4.30etan. Atxabalpe.</p> <p><b>2. Erregionala:</b> Mondra - Segura. Larunbata. 4.15etan.</p> <p><b>Emakumeak:</b> Ostadar - Mondra. Larunbata. 4etan.</p> <p><b>Jub Ohorezko liga:</b> Mondra - Mundaniz. Igandea. 11etan.</p> <p><b>Lehen kadeteak:</b> Bergara - Arrasate. Igandea. 6etan.</p> <p><b>Infantilak:</b> Arrasate - Beasain. Larunbata. 12.30etan.</p>	<p><b>EBA Liga:</b> Bilbao Patronato 80 Urbina Maltzaga 79</p> <p><b>Seniorrak S-23:</b> Eskoriatza 50 Urbina Maltzaga 73</p> <p><b>Juniorrak A:</b> Etxadi 46 Urbina Maltzaga 71</p> <p><b>Juniorrak B:</b> Urbina Maltzaga 62 Ikastola Urmek 61</p> <p><b>Seniorrak Emak:</b> Urbina Maltzaga 51 AT. S. sebastian 48</p> <p><b>Kadeteak Emak A:</b> Urbina Maltzaga 51 Gros Loiola 52</p> <p><b>Kadeteak Emak B:</b> Eskoriatza 17 Urbina Maltzaga 52</p> <p><b>Hurrengoak:</b></p> <p><b>EBA Liga:</b> Urbina Maltzaga - Ponferrada. Larunbata. 6.30etan. Iturripen.</p>	<p><b>Lehen maila:</b> Redoldela - Arrasate. Larunbata. 7etan. Pontevedra.</p> <p><b>Lehen territoriala:</b> Bidebieta - Arrasate. Igandea. 11etan. Donostia.</p> <p><b>Jubenilak:</b> Oñati - Arrasate. Igandea. 11etan. Oñati.</p> <p><b>Futbitoak</b></p> <p><b>Lehen maila:</b> Madaya 4 Arrasate 3</p> <p><b>Arabako territoriala:</b> Betikoak 5 Arrasate 8</p> <p><b>Hurrengoak:</b></p> <p><b>Lehen Maila:</b> Arrasate - Sestao. Igandea. 12etan. Iturripen.</p> <p><b>Arabako territoriala:</b> Arrasate - Txanogorritxu. Larunbata. 5etan. Musakola.</p>	<p><b>Lehen maila:</b> Arrasate 34 Sestoa 8</p> <p><b>Jubenilak:</b> Ordizia 54 Arrasate 0</p> <p><b>Hurrengoak</b></p> <p><b>Lehen maila:</b> Elorrio - Arrasate. Larunbata. 4etan.</p> <p><b>Jubenilak:</b> Hernani - Arrasate. Larunbata. 4etan.</p> <p><b>Emakumeak:</b> Hernani - Arrasate. Larunbata</p> <p><b>Pilota</b></p> <p><b>Eskuz banaka:</b> Aretxabaleta 5 Arrasate 18</p> <p><b>Paletan:</b> Adurtza 35 Arrasate 20</p> <p><b>Hurrengoak</b></p> <p><b>Paletan:</b> Arrasate - Altza. Larunbata. 11.30etan. Musakola.</p>



LORATEGI "BAR"

Iturriotz, 7 ARRASATE  
Tfnoa: 79 04 67

TXOKO  
TABERNA

Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

# Haratuzteak 1855. urtean

**Lege** zorrotzak ezarri zituen Arrasateko Udalak 1855. urtean Haratuzteak zirela eta. Badirudi jaiak, kareta eta egun horietako alaitasuna zirela medio, kalte eta ezbehar dexente gertatu zela aurreko urteetan.

Horrela bada, neurri gogorak hartzea erabaki zuen Udalak. Zortzi ziren:

1- Haratuzteek irauten duten hiru egunetan zilegi da mozorroturik eta karetaekin ibiltzea, baina ilunabarrera arte.

2- Erljioaren ministroen arropak jantztea debekaturik dago.

3- Irainak eta mehatxuak debekaturik daude, hala mozorroturik daudenen artean nola mozorroturik gabe daudenen artean. Debekatuta dago gainera moral eta dekoru publikoaren aurka doan edozein ekintza.



3- Mozorroturik dagoen inork ezin izango du armarik eroan.

5- Inork, mozorroturik egon edo ez, ezin izango dio inori kareta kendu ezta ken-

tzera derrigortu, nahiz eta dekoraren kontrako edozer egin. Ordea, autoritateengana eraman ahal izango du eta hauek eginiko kaltearen arabera zigortuko da.

6- Debekatuta dago taberna eta ostatuetan kareta eramatea. Ugazabaren ardura eta erantzukizuna da.

7- Edozelako tresnekin besteen jantziak zikindu edo apurtzen dituztenak autoritateengana eraman ahal izango dira merezi duten bezala zigortzeko.

8- Aurreko disposizio guztiak bete egiten direla ziurtatzeko herriko aguazilak daude.

Eta inork ezjakintasunari errua bota ez diezaion, bando hau betiko lekuetan jartzea agindu dut.

Arrasaten, 1855.eko otsailaren 4an.

## BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

### Mamografia

**Gune susmagarriak aurkitzea.**

**Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.**

**Bularreko ekografiak.**

**Bularreko tumoreen zitologia.**

**Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.**

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



**DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.**

**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**

## Z E R N A H I A G O ?

**Mari Carmen Pardo****“Estética Pardo” zentrukoa**

- **Zer eskeintzen du zuen zerbitzuak?** Depilazio elektrikoa, depilazio progresiboa, depilazioa argizari hotz eta beroarekin, mediku aholkularitzarekin gorputz eta aurpegirako tratamenduak eta solariuma dutzarekin.
- **Zer ordutan oheratzen zara?** 12ak aldera.
- **Jatordu bat?** Espagetiak.
- **Zein aldizkari irakurri edo erosten duzu?** “Cosmopolitan”.
- **Izenaz aldatzeko aukera izango bazenu, zein izen jarriko zenioke zeure buruari?** Sonia, adibidez.
- **Telebistako programarik gustokoena?** “Rifi-rafe”.
- **Aurkezle bat?** Antxon Urrusolo.
- **San Valentín egunean egin zenuen oparirik?** Ez.
- **Ez zaude maiteminduta?** Ez.
- **Kantari bat?** Chris De Burgh.
- **Mutilik etortzen da kontsultara?** Bai.
- **Zer egiten duzu asteburuetan?** Domeketan zinera joaten naiz eta zapatuetan kalean ibiltzen naiz lagunekin.
- **Askotan joaten zara ileapaindegira?** Permanentea egin behar dudanean eta puntak mozttera.
- **Zapatak, takoidunak edo lauak?** Lauak.
- **Praka marka bat?** “Bonaventure”.
- **Alkandorak, marradunak ala koadrodunak?** Koadrodunak.
- **Karnabaleako jantzia prest?** Ez, ez naiz mozzoratuko.
- **Jantzeko kolore bat?** Crema kolorea.
- **Kirolik egiten duzu?** Eskiatzera joaten naiz eta aerobica egiten dut.
- **Zapatu gauerako, tabernak ala diskotekak?** Diskotekak.
- **Ilea, aske ala batuta?** Aske.
- **Boligrafoa ala luma?** Boligrafoa.
- **Mutil rubioak ala morenoak?** Biak.
- **Zer falta zaio Arrasateri?** Dantzan egiteko “pub”ak.



## LABURRAK

**“La Traviata” eta “Otelo”: sarrerak salgai**

Txekoslobakiako Opera Konpainiak sekulako opera emanaldia eskeiniko du martxoaren 4an eta 5ean Amaia Antzokian: Verdiren “La Traviata” eta “Otelo” opera eza-gunak, hain zuzen ere.

Bi emanaldiak ikustera joateko asmorik baduzu, jakin, sarrerak datorren astelehenean, hilak 20tik aurrera egongo direla salgai Arrasate Musikalena. Bazkide direnek, opera bakarra ikusi nahi izanez gero, 2.500 pta. ordaindu beharko dute eta bi emanaldietara joan nahi izanez gero 4.000 pta. Bazkide ez direnek 3.500 pta. tan lortuko dute emanaldi bakar-rerako sarrera eta bietara joan nahi badute, 6.000 pta.

Txekoslobakiako Opera Konpainiaren emanaldietara joateko ilusioa duzenok azkar ibili beharko duzue, kanpotik jende asko etorriko da eta operok ikusi eta entzuterako. Amaia Antzokian opera emanaldirik sekula egon ez denez, mereziko du Txekoslobakiar hauen abotsak entzuzeko gozatzea. Anima zaitzete, horrelako aukerarik ez da egunero izaten eta!

# San Martín Osasundegia

DERMATOLOGIA

UNITATEA

Garcandia Doktorea

PATOLOGIA DIGESTIBOEN

UNITATEA

Otazua Doktorea

OBSTETRIZIA ETA  
GINEKOLOGIA UNITATEA

Serrano Doktorea

PSIKOLOGIA

UNITATEA

J.R. Fernandez

ZIRUGIA UNITATEA

Alberro Doktorea

Ramon María Lili, 2 BERGARA • Tfnoa: 76 59 39/72 • Faxa: 76 25 72

# Maidar Osa

## “Nire mutilak jatorra izan beharko du”

**Neska panpoxa honek 16 urte besterik ez ditu baina amodio kontuetarako adinez nagusi dela erakutsi digu. Amodio-gutunak idazteko behintzat, nahikoa trebezia du. Horren lekuko, Berrigarako Amodiozko Gutunen Lehiaketan eskuratu duen lehen saria.**



— Maiteminduta ez zaudela diozun arren, hemen dik aurrera San Balentin egunak zeresan berezia izango du zuretzat, ez?

— Aurtengo San Balentin egunak behintzat bai, sari bat eskuratu dut eta. Bestela, ni ez nago maiteminduta, momentuz ez zait gustoko mutilik parean suertatu eta!

— Lekaime batek apaiz bati idatzitako gutuna da zurea. Lekaimeak maitemindu egiten dira, ala?

— Ez dakit. Nik gutun orijinala egin nahi nuen, halako lehiaketetan orijinalitateak garrantzia handia duela uste dut eta. Betiko amodio gutunen errutinatik irteko, lekaime batek apaiz bati idatzitakoa egin nuen nik. Dena den, hasieran ez nuen inolako eskutizik aurkezteko asmorik, baina igande batean, irratan lehiaketaren berri entzun, eta ton-tamentean hasi nintzen. Hasieran arrantzale batek idatzitako gutuna egitea pentsatu

nuen baina gero, gai hori aurretik norbaitek idatzi zuela esan zidan ahizpak, beraz, beste zerbaitetan pentsatzen hasi eta apaizaren historia etorri zitzaidan burura.

— Epaimahaia harrিতa geratu da zure eskutitzaren euskera aberatsarekin...

— Nire idazkietan euskera aberatsa erabiltzea gustatzen zait, esaten den moduan, “hogei duroko hitzak” oso gustoko ditut, beraz, horregatik irudituko zitzaie hain aberatsa, ez dakit... bestela ere, bertso edo ipuinen bat idazten dudanean, pape-ra ahalik eta gehien janzen ahalegintzen naiz. Dena dela, eskolan idazten ditudan eguneroko testuetan ez naiz hain “elegantea” izaten.

— Nola hartu zenuen berria?

— Batez ere, poza sen-

titu nuen. Ez nuen irabazterik espero. Esperantzak banituen, jakina, baina ez nuen lehen saria eskuratuko nuenik espero.

— Oso literaturzalea omen zara. Zein da zure idazlerik gustokoena?

— Irakurri dudan azken liburua “Emakume biboteduna” izan da eta asko gustatu zait, baina ez dut gogoratzen nork idatzi duen. Bestela, Joseba Sarrionandia asko gustatzen zait eta Juan Mari Irigoien ere bai; “Babilonia” liburua oso ondo dago.

— Bertsotan ere oso trebea zara. Nondik datorkizu idazteko zaletasun hori?

— Nire etxean oso bertso-zaletasun handia dago eta bertsoetarako grina etxetik datorkit. Dena den, prosari dagokionez, Berrigarako Amodiozko lehiaketa honetan lehenengoz hartu dut parte.

— Nola egingo zenuke maitasun aitoren bat?

— Eskutitzez, adibidez.

— Maiteminduta ez zaudela diozu. Zein baldintza bete behar du mutil batek zure gustokoa izateko?

— Jatorra izan behar du, eta konfidantzazkoa ere bai. Fisikoa bigarren planoan geratuko litzateke... dena dela, guapoa bada, hobeto!

### LABURRAK

#### IKASPILOTA Monterronen

Ikastolen Elkartearen IKASPILOTA erakusketa ibiltaria Arrasatera helduko da datorren astelehenean, eta iganderate izango da geurean. IKASPILOTA orainarte irakaskuntzara mugatu bada ere, orain, Kutxa Fundazioaren laguntzaz, Euskal Pilotaren Erakusketa Ibiltari honi esker, zeharo zabaltzen da proiektu honen hedapena.

Panelen bidez pilotaren historia ezagutzeko aukera izango da erakusketan. Panel horietan, pilota modalitateak, pilotak egiteko erremintak, erreminta horiek nola egiten diren, pilotarien janzkerak eta pilota frontoi desberdinei buruzko azalpenak izango dira. IKASPILOTA zer den ere azalduko da erakusketan.

Astean zehar arratsaldeko 6etatik 8etara egongo da zabalik erakusketa eta goizez ikastetxeentzako zabalduko da, goizeko 9.30etatik 12.30etara. Asteburuetan goizeko 12etatik ordu bietara eta arratsaldeko 6etatik 8etara egongo da zabalik Monterronen.

#### Lertxundi eta Egaña martxoaren 12an

Martxoaren 12an “Korrika” Arrasatetik pasatuko dela eta, musika emanaldia izango da Amaia Antzokian. Benito Lertxundiren musika eta Andoni Egañaren bertsoekin gozatzeko aukera izango dugu mondrauetarrok!



### BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12  
ARETXABAETA

### UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00  
o Telefax: 793412


# Haratuzte egitaraua prest

**Heldu** dira norberaren burua mozorrazteko urteko egunik aproposenak: Haratuzteak. Urtero legez, aurten ere, egitarau polita antolatu dute Udalak eta SUDC batzordeak festa hauek ahalik eta ondoen pasatzeko.

## Otsailak 25, larunbata

Otsailaren 25ean hasiko dira aurten haratuzteak Arrasaten. Egun horretan arratsaldeko 4.30etatik 7.30etara, "Super Bat Ihauteri Festa" izango da Musakolako kiroledegian.

Egun berean arratsaldeko 7etan eta gaueko 10.30etan, Amaia Antzokian "Sábado Regular VI. Play-Back Jaialdia"z gozatu ahal izango dugu herritarrok. Larunbateko jai egitaraua Haitzama musika taldearekin amaituko da, gaueko 11etan hasi eta goizaldera arte.



Otsailaren 25ean "Super Bat"eko pertsonaiak etorriko dira kiroledegira.

## Otsailak 26, igandea

Arratsaldeko 7etan dantzaldia izango da Herriko Plazan Eguzki taldearekin. Dantzaldiaren ostean, gaueko 8.30etan, zezen suzkoa aterako da Udaletxeko arkupeetatik.

## Otsailak 28, asteartea

Behar-beharrezkoa da

mozorroa prestatuta izatea. Egun honetan, zeure burua itxuraldatu eta amesten duzun pertsonaia horren gisara jantzi ahal izango duzu eta.

Umeak eskolatik irten ostean hasiko da astearteko jai-egitaraua; arratsaldeko 5etan Seber Altube plazan "Bizkor, Koxkor eta Enpresario jauna"

pailazoen emanaldia izango da, eta ordu berean, "Samasiku" fanfarrea izango da kalez kale arratsaldea alaitzeko. 7etan, Arrasateko erraldoi eta kilikiak dultzainariekin batera aterako dira kalejiran.

Gaueko egitaraua helduei zuzenduta egongo da. Gaueko 10etatik goizaldeko ordu biak arte, Iratxo taldeak joko du herriko plazan. Tartean, "Samasiku" fanfarrea kaleetan zehar ibiliko da giroa alaitzen. 11.30etan Sardinaren Hileta egingo da. Desfilea Herriko Plazan amaituko da, sardina bertan erretzeko.

Aurten ere izango da mozorro lehiaketa. Gaueko 12.30etan Herriko Plazan egingo da sari banaketa; banakako mozorrorik onenak 5.000 ptako diru saria etxeratuko du; bikoteko mozorrorik onenak 10.000 pta. eta taldeko mozorrorik onenak, 30.000 pta.

## Ume atzeratuentzako sistema musikala

**Arrasate** Musikalek musika ikastaro berezia antolatu du 3-8 urte bitarteko ume atzeratuentzako, otsailaren 18 eta 19an. Ikastaro hau musika sistema berezi batean oinarrituta dago, "Aschero Sistema Musikal"ean, hain zuzen ere. Ikastaroak asteburu bateko iraupena izango du eta sistema honen asmatzailea eta bultzatzailea, Sergio Aschero, etorriko da akademiara.

### "ASCHERO" SISTEMAREN MAMIA

Musika errepresentatzeko zeinu-kodigo berri baten oinarritzen da sistema hau. Adibidez, pentagrama batean kortxea bat agertu beharrean, kolore konkretu bateko zenbaki bat idatziko da tamaina txiki edo handiagoarekin eta zenbaki horrek, kortxearen esanahi bera izango du. Sis-



Musika koloreen eta zenbakien bidez errepresentatzen da.

tema honen helburua pentagrama baten interpretazioa arintzea da, hau da, erraztea.

"Aschero" sistema duela 30 urte sortu zen eta Amerika eta Europan aplikatu den arren, estatuan oso musika

eskola gutxitan ezagutzen da.

Ikastaroaren helburua, Arrasate Musikaleko eta eskoletako irakasleei eta atzeratuen gurasoei sistema honen berri ematea da. Jose Ramon Vitorriak adierazi digunez, "ikas-

taro honek ez du sistema hau Arrasate Musikalen berehala aplikatuko denik esan nahi, baina ez dugu horretarako posibilitatea baztertzeko, atzeratuentzako sistema hau, oso interesgarria da eta".

Hartutze egitaraua presbiterio

"Nire mutillak fatormi..."  
"da eta ordu berain" "Sama"  
"eta lanmaitza..."  
"le...  
"..."

Hebu dia...  
"KASPILO"  
"..."  
"..."  
"..."



1950eko abuztuaren 3an, Udalako Ozaeta baserrian.

L

**elaitxo** ezizenez ezagutzen direnak familia zabala dira Arrasaten. Jatorria Udalan du-te Azkarate eta Zabartetarrek eta bertan atera zuten erretratu hau aitajauna eta amandrea bizi ziren artean. San Estebanak ziren, 1950eko abuztuaren 3a eta aitzaki horrekin batu zen familia eta baita etxe ondoan, Ozaeta baserrian, erretratistaren aurrean dotore jarri ere!

Goitik ezkerretik hasita, **Antonio Zubillaga, Kris-**

**tobal Otxoa, Jose Antonio Mendiburu, Martin Bengoa, Prudentzio Torres, Mari Zabarte, Begoña Zubillaga, Jesus Azkarate, Kontxi Otxoa eta Jesus Mari Otxoa.**

Beherago, **Iñaxio Lopez de Uralde, M<sup>a</sup> Luisa Santamarina, Juan Castillo, Marina Jauregi, Bixente Azkarate, Jenobeba Zabarte, Iñaki Zubillaga, Anton Azkarate, Antoni Zabarte, Patxi Zabarte, Ru-**

**fina Zabarte eta Isabel Zabarte.**

**Mariano Azkarate, Dominika Zabarte, Tomasa Zabarte, Leokadia Beitia, Bixente Zabarte eta Ramon Bilbao.**

**Mari Jesus Azkarate, Pilar Zubillaga, Flora Zabarte, Julian Herrarte, Maribel Mendiburu, Juan Antonio Torres, Jose Luis Azkarate, Mariano Azkarate, Jose Luis Torres eta Mari Karmen Zubillaga.**

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein  
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84

BASABE  
JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA

**Begoña**  
lurrindegia

Drogeria  
Jostailuak  
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa,  
Tfnoa: 79 03 73

# IKASTARO GAZTEAK



## Euskal dantzak (Lore Gazteak)

### 10-14 URTE BITARTEKOENTZAT:

- ✦ Otsailaren 16tik San Juanak arte
- ✦ Ostegunetan, 6'30etatik 7.30etara
- ✦ Matrikula: 1.000 pta.

### 15 URTETIK GORAKOENTZAT:

- ✦ Martxoaren 24tik San Juanetara
- ✦ Ostiraletan, 7etatik 8.30etara
- ✦ Matrikula: 1.000 pta.

## Jazz dantza

- ✦ Martxoak 4 - 11 - 18 - 25
- ✦ Larunbatetan, 4'30etatik 6etara
- ✦ Arrasate Musikalen
- ✦ Matrikula: 3.000 pta. / 1.500 ikasle eta langabetuentzat

## Saltsa


- ✦ Martxoak 6 - 17
- ✦ Astelehen, asteazken eta ostiraletan

### HASTAPEN MAILA

- ✦ 11'45etatik 13etara
- ✦ 6'15etatik 7'30etara

### SAKONTZE MAILA

- ✦ 7'45etatik 9etara
- ✦ Matrikula: 3.000 pta. / 1.500 ikasle eta langabetuentzat



## Argazkigintza (ASA)

### HASTAPEN MAILA:


- ✦ Martxoaren 7tik apirilaren 5era, astearte eta asteazkenetan
- ✦ 6.30etatik 8.30etara
- ✦ Matrikula: 3.000 pta. / 1.500 ikasle eta langabetuentzat

### SAKONTZE MAILA:

- ✦ Maiatzaren 8tik 25era
- ✦ 7.15etatik 9.15etara
- ✦ Matrikula: 3.500 pta. / 2.000 ikasle eta langabetuentzat

## Alboka (Karlos Subijana)

- ✦ Martxoak 4tik San Juanak arte
- ✦ Larunbat goizetan
- ✦ Arrasate Musikalen
- ✦ Matrikula: 2.000 pta. / 1.500 ikasle eta langabetuentzat



• ESAERA ZAHARRA •

*Mazitatzeak maitatze du hartzen.*

**OIHENARTEK**  
(1592- 1675) jaso.

• JEROGLIFIKOA •



Joan den urtean, gaixo.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						9
10						11
12			13		14	
15			16			
		17				
18						19

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Truman, idazle estatubatuarra. 8. Ezin lor daitekeena. 10. Garaia. 11. Rutenioa. 12. (Ald.) Sakratu egin. 15. Lehen-aldiko ZEN, orain-aldian. 16. Ulisesen aberria. 17. (Ald.) Lurrikara. 18. 5 bokalak KONPARTIMENTUko ordenan. 19. Esnatu aurretik.

**Bertikalak** 1. Rugbyko entrenatzailearen izena. 2. Arteria handiena. 3. Branka. 4. (Ald.) dei hitza, TXO itsasaldean. 5. Setatsu. 6. Ukatzeko hitza. 7. (Ald.) Futbol-talde nafarra. 9. (Ald.) Lekan hazten den fruitu. 13. (Ald.) Buruzagi arabiarra. 14. Sustanzia, materia. 17. Hortzak finkatzen ditu.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Zelako komeriak egiten dituzun ligatzeko. Trankilago hartu.

**Taurus** Zorionez bolada honetan ez duzu griperik harrapatuko.

**Gemini** Eltxo bat bezalakoa zara. Beti besteen gainean.

**Cancer** Sormen handia duzu, baina zirriborroak egiteko.

**Leo** Bapo jan eta bapo edan. Hori bai bizimodua!

**Virgo** Makal zabiltza azkenaldian. Bitaminak hartu beharko zenituzke.

**Libra** Txoriburu hori! Jeitsi zaitez zerutik.

**Scorpio** Atzerritar batek afaltzera gonbidatuko zaitu laster.

**Sagitaris** Umeak uxatzen dituzu. Zer esan nahi ote du horrek?

**Capricorn** Etxean zeini egiten diote kasu gehiago, zuri ala txakurrari?

**Aquarius** Lehenago etxeratzen ez bazara gurasoek zigortu egingo zaituzte.

**Piscis** Horrela jarraitzen baduzu sustraiak botako dituzu etxean.

# Etxe-Aundi



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,

**EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU**

*Anno de Cederniu*

*Andregaiak, galdetze hutsagatik, opania jasoko du*

**ZUEK ESAN PREZIOA ETA GUK MENUA**

Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90




• TELEBISTAREN TXOKOA •

# Bidaiaren zozketa aurrera doa!

**B**adakizu ATBketan lehiaketara parte hartzera etorritz gero, Ecuador bidaia agentziak ematen duen bidaia irabaz dezakezula. Orain arte, 3 bidaia oparitu ditugu Bartzelonara eta zuk ere lagun batekin parte hartzera bazatoz, beste bidaia bat irabaz deza-kezu. Gainera, ez pentsatu lehiaketa honetan egiten diren galderak eta pasatu beharreko frogak zailak direnik: primeran pasatuko duzu Idoia Peñakoba eta ATBko langile guztie-kin. Parte hartu nahi baduzu, ATBra deitu eta zure izena eman... bidaia bat dago jokoan!



• KOMIKIA •



Artikulu

• PROGRAMAZIOA •



**19 Igandea**

21.30etan  
**Mondragol. Itxaro Zubilla-**  
gak aurkeztua.

**20 Astelehena**

20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan  
**Mondrasport**

**21 Asteartea**

13.30etan  
**Mondrasport (errep.)**  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan  
**ATBketan**

**22 Astezkena**

13.30etan  
**ATBketan (errep.)**  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan  
**Gazte-Nahaste**

**23 Osteguna**

13.30tan  
**Gazte-Nahaste (errep.)**  
20.30etan  
**Berriak**  
21.30etan  
"Trebelerak" Eskulana:  
Paperezko pastarekin egin-  
dako irudiak.

**24 Ostirala**

13.30etan  
"Trebelerak" (errep.)  
19.15etan  
**Marrakzi Bizidunak**  
19.50etan  
**Kukaratxa Motel**  
20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan  
**Astebete**  
22.00etan  
**Marrakzi Bizidunak**

• SOLUZIOAK •

Horizontaleak: 1. Capote, 8. Lortezina, 10. Aro, 11. Ru, 12. Sagartu, 15. Da, 16. Itaka, 17. Seismo, 18. OAIKU, 19. Lo.  
Bertikaleak: 1. Claudio, 2. Aorta, 3. Proa, 4. To, 5. Tematsu, 6. Ez, 7. Osa-suna, 9. Lekart, 13. Emtr, 14. Gal, 17. OI.  
Jergifikoa: laz eri.

## Etxe-Aundi

**1. PLATERA**

Urdainz-piko iberiarra  
Trijitu aukeratua

**2. PLATERA**

Haragia edo arraina

**POSTREA**

Etxeko gozoteria

**ARDOA**

Etxeko ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

## Monte taberna

Maalako arrabala, 11  
Tfnoa: 79 20 56

**Etxebizitzak**

- **Donostian etxebizitza baten bila nabil.** Zure etxean toki bat badaukazu, deitu 79 77 02 tfnora. Harremanetarako, Santirekin.
- **Etxebizitza salgai Errebuelta kalea, 8** 6-Behea. Tfnoa: 79 41 68.
- **Etxebizitza bat alokatzen dugu Biteri etorbidean.** Tfnoa: 77 00 80.
- **Etxebizitza erosi nahi nuke** 7 eta 9 miloi pta bitartekoa. Harremanetarako dei egin 79 37 68 tfnora.
- **Etxebizitza salgai Maalako Arrabala, 19.** zembakian. Tfnoa: 79 78 65.
- **Nesken etxe batean logela alokatzen da.** Tfnoa: 81 22 06. Saioa.
- **Etxebizitza baten bila nabil Arrasaten.** Tfnoa: 21 63 74. Iban.
- **Etxebizitza alokagai erdialdean.** Tfnoak: 77 03 38 eta 79 18 03.
- **Nesken etxebizitza bat osatzeko bi pertsona behar dira.** Tfnoa: 79 11 85.
- **Etxebizitza salgai Urriburu kalean.** 3 logela, komuna, sukaldea, egongela berogailu indibiduala, garaje opzionala. Tfnoa: 79 39 91

**Lana**

- **Taberna alokagai** atenditu ezin dugulako. Interesatuok dei egin 79 23 81 tfnora, arratsaldez.
- **Esperientziadun neska arduratsua eskaintzen da** edozein motatako dendatan saltzaile lanak egiteko. Umeak zaindu eta etxeko lanak egin ere egingo lituzke. Tfnoa: 79 73 06.
- **Esperientziadun neska eskaintzen da** umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 96 10.

- **Laguntzaile gisa egingo luke lan** etxebizitzetan, tabernetan, atarrietan, kontsultategietan,... Tfnoa: 79 96 10.
- **Neska, umeak zaindu,** etxeko lanak egin edo lokalen garbitasun lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 37 68.
- **Klase partikularrak ematen dira,** UBI eta asig-natura batzuk (Matematika, fisika, kimika, informatika,...) euskaraz eta erdaraz. Talde txikiak. Tfnoa: 79 56 82 eta 79 71 89.
- **Gaisoak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 88 40.
- **Aizu, neska.** Denda batean lan egin nahi baduzu, bidali zure datuak 259 posta kutxatilara (Arrasate).
- **Umeak edo adineko pertsonak zainduko nituzke.** Tfnoa: 79 23 54.
- **Esperientziadun emakumea,** prest garbitasun lanak eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 15 19. Informeak eskuragarri.
- **Andra bat etxeko lanak egiteko prest.** Orduka Tfnoa: 77 10 20. Nati.
- **Emakume euskalduna umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Neska esperientziaduna umeak zaintzeko** eta garbiketarako egiteko prest.. Tfnoa: 79 77 94.
- **Andra erizain auxilierra eta esperientziadun gerokultora** pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.

**Salerosketak**

- **Lokal komertzial baten bila gabiltza,** 200-300m<sup>2</sup>koa eta erdialdean. Tfnoa: 79 07 84. 4etatik 8etara.
- **100 litroko FAGOR termoa** saltzen dut prezio onean. Tfnoa: 79 07 73.

- **SUZUKILIDO motorra salgai,** 75 cm<sup>3</sup>koa. Matrikula: VI-3154-M.3 urte ditu. Maletero eta parabriskarekin. Tfnoa: 79 12 01. Joseba.
- **FORD ESCORT XB3i-a salgai.** (SS-AC). Tfnoa: 71 43 31.
- **Garaje itxia alokatzen da,** Larrea aldean. Tfnoa: 79 69 41. Julia.
- **10 litroko FAGOR kalentadorea salgai,** ia berria. 13.000 pta. Berogailu japoniarra, handia eta berria, 35.000 pta. Tfnoa: 77 01 64.
- **FORD FIESTA 1.100 Trip salgai.** SS-AB. Ondo zaindua eta prezio onean. Tfnoa: 76 46 80. Gaez deitu. Anabel.
- **Roneoko etxeetan garajea alokagai.** Tfnoa: 79 36 39.
- **Garajea alokagai Urriburu auzoan.** Tfnoa: 79 90 30
- **RENAULT 4-a salgai. 50.000 pta.** Matrikula: SS-T. Tfnoa: 79 58 82 (astebukaeretan).
- **IBAÑEZ markako gitarra saltzen dut,** funda eta guzti. 30.000 pta. Txema. Tfnoa: 79 13 26.
- **Musika talde baten bila nabil, lokala konpartitzeke.** Txema. Tfnoa: 79 13 26.

**Denetarik**

- **Urrezko pultsera galdu zitzaidan urtarilaren 21ean** Villa Amparo garajeetatik Aldairainoko bidean. Tfnoak: etxekoa: 79 00 16. lanekoa: 79 05 35. Gurutze.
- **Astelehenetan, goizeko 9ak baino lehen Bilbon egon beharra dut,** baina ez daukat autorik. Norbaitek eraman ahal izango banindu, gastuak erdibana egingo genituzke. Tfnoa: 79 76 90. Ana.
- **ARRASATE PRESS-eko 192. zembakia behar dut.** Tfnoa: 79 55 04.

**Aste Gazte**

**Bekak**

- **Arte Plastikoetan sortzeko bekak,** Kultur Ministeritzat deituta. Arlo honetan esperientzia edo titulazio akademikoa dutenei zuzenduta. Epea: apirilak 4.
- **95-96 ikasturtea** Liejako (Belgika) Unibertsitatean ikasketak zabaltzeko zein ikerketak egiteko bekak. Lizentziatuei nahiz karrerako azken ikasturtean dabilizatenei zuzenduak. Epea: martxoak 24.
- **"Argentaria Fundazioak"** Museologiari buruzko bi beka

deitu ditu, lizentziatuei zuzenduak. Epea: apirilak 28.

**Lana**

- **Leioako Udalak** lanpostu hauek kaleratu ditu: gizarte laguntzaile bat, administrari laguntzaile bi, konserje bi, kultur arloko laguntzaile bat eta igeltsero bat.
- **Donostiako Udalak:** arkitecto bat, albaiteiro bi, ingurugiro goi teknikari bat, ingurugiro teknikari laguntzaile bat eta komunikazioetako operadore bat behar ditu. Epea: martxoak 8.

**Ikastaroak**

- **Ikastaro Gazteak:** alboka, euskal dantzak, argazkigintza (hastapen eta sakontze mailak), saltsa eta jazz. Izen emateak Gazte Bulegoan.
- **Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak** "Izotz-eskalada ikastaroa" antolatu du, Gavarnie eta Troumoussen. Martxoak 4-5 eta 11-12 asteburuetan.
- **Urtxintxa eskolak** antolatuturik "Ludoteka" ikastaro monografikoa martxoaren 11tik apirilaren 1era. Matrikula, 7.000 pta. Epea: martxoak 3.

**"Eta, hala ere, bere gaztaroko pertsona eta lekuak bere bizitzatik behinbetirako ezabatu zituen!"**  
**ALEXANDRA LAPIERRE**  
**"CORTESANA"**



**Informazio gehiago:**  
**GAZTE ZERBITZUA**  
**Tfnoa: 77 00 65**

ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN



# Berango

ALTZARIAK

**ERAKUSKETA**

Legarre pabiloia z/g

Gipuzkoa Etorbidea

Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE

OPEL ASTRA MERIT BERRIA

# GUTXIK EMATEN DUTE HAINBESTE...

Ez utzi eramaten! Opel Astra Merit Berria da.

Gutxik ematen dute injinerutza, segurtasun eta ekipamenduan hainbeste:

**Ecotec 1.6i motorea, 16 balbula eta 100 CV.** injinerutza alemaniarra.

4 eta 5 ateko eta Caravan bertsioak. Honakook serietik: **Neurri handiko**

**Airbag-a, polenaren kontrako Mikrofiltroa, alboetako babes-barrak,**

**Uhal aktiboak, lapurreten aurkako irrati-kaseta, 6 bozgorailu eta**

**funtzio hirukoitzeko pantailaduna, Itxitura zentralizatua,**

**aurrekaldean kristalgorailu elektronikoak, Direkzio**

**lagundua, Eserlekuetan irristatzearen aurkako**

**babesak... Zatoz zure Opel Banatzaileara.**

Inork ez dezala zure autoa eraman!

... **HAIN GUTXIREN**  
**TRUKE**



**1.522.000 Ptatik\***  
hasita daukazu OPEL ASTRA  
bat EZ UTZI INORK ERAMATEN!

\*Fabrikatzaileak gomendatutako prezioa (Penintsula eta Balearretako). Garraioa, B.E.Z.- a, matriculazio zerga, entrega-aurreko gastuak eta promozioko deskontua barne. Flotentzako salmentak: Egin kontsulta zure Opel Banatzaile Ofizialean.

**OPEL** 



**10<sup>o</sup>**  
**URTEURRENA**

**TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)  
Zerbitzu Oficiala **ARRASATE**n

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL BANATZAILE OFIZIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK.